



KULTURA X SAREAN

Etorkizun
jasangarrirak
aliantzak

Topaketa
Profesionalak
KULTURA KUDEATZEA

Argitaratzailea: KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkartea

info@gestionculturana.org

Testuen transkripzioa eta berrikuspena: Amore Verbum Traducciones

Diseinua eta maketazioa: Amore Verbum Traducciones

Itzulpenak: Enrique Díez de Ulzurrun

Edizioa: 2025ko iraila

Argitalpen honetan azaldutako ideiak eta iritziak egileei dagozkienak dira, eta ez dituzte nahitaez editoreen iritziak islatzen.

© Kongresuaren edizioa eta argazkiak: KUNA

© Irudietatik: egileak. Irudiak eta bideoak dibulgaziorako ereabili dira, eta egileenak dira

EDUKIAK

Nafarroa kulturgintzako erronken aurrean: hurbilketa bat datuetan. 4. orrialdea

Inaugurazio-hitzaldia Isabel Villanuevaren eskutik. BIMEko zuzendari nagusia / UIC Bartzelonako irakasle titularra eta Berrikuntza eta Kalitateko zuzendaria / ESMUC irakaslea / Sweet Bird-en sortzailea.

Kultura sarean: lurralde-lankidetzazko esperientziak


16. orrialdea

Mahai-ingurua, lurraldeen arteko lankidetzazko proiektu eta -ereduekin. Hizlariak: Adolfo Velez, Corralizas elkartearen ordezkaria eta Electra, Marisa Iturbide, Elkartearen sortzaileetako bat Itineris COMA, eta María Amatriain, Erdialdea Partzuergoko teknikaria.

Sareak eta aliantzak, kultur garapenaren bultzada lurraldean

28. orrialdea

Topaketa Ricard Espelt Rodrigorekin. Ikerlaria, irakaslea UOC eta kultur ekintzailea, XarxaProd-eko kidea, Kataluniako sorkuntza eta ekoizpen guneak. Ikertzailea eta irakaslea UOC unibertsitatean, Universitat Oberta de Catalunya.



Nafarroa kulturgintzako erronken aurrean: hurbilketa bat datuetan

Isabel Villanueva

BIMEko zuzendari nagusia / UIC Bartzelonako irakasle titularra eta Berrikuntza eta Kalitateko zuzendaria / ESMUC irakaslea / Sweet Bird-en sortzailea



Egun on edo gabon, ez baitakit zer ordutan gabiltzan, baina egiazki ohorea iruditzen zitzaidan Artaxoara etorri ahal izatea. Azalduko dizuet zergatik: uste dudalako kulturaren zentralizaziotik kanpo antolatzen diren goi-mailako mugarri eta topaketetako bat delako, horixe baita gaur egun dugun erronka handietako bat.

Eta kulturaren elkarrekin jorratu beharreko gai handietako bat azpimarratzen hasi nahiko nuke. Bigarren puntu handi bat ere nabarmendu nahi dut, hots, hemen ematen ditugun datu guztiak kontu handiz hartu behar dituzue, zeren beste arazo handi bat ere ba baitugu, hau da, ez dago daturik kulturaren sektorean. Sekulako gabezia dago, endemikoa, non gauden, zer ordezkatzan dugun, zer garen BPGean, ekonomiarri begira, arlo sozialari begira, osasun arloari begira... Zer esanahi duen kulturak gizartearentzat. Gai handi bat da, eta datuetatik ateratzen dugunean, ez dirudi teknikoa denik. Datuak, ikerketa, lagungarriak dira sektore hau duintzeko, eta sektorearen balioa izugarria da, beharrezkoa delako eta gizakiari datxekirolako; izan ere, beharrezkoa dugu kultura eta beharrezkoa dugu musika, bizitzeko, irakurtzea... gizakiari barne-barnetik datxekion kontuan denez, ez diogu eman datuetan behar duen pisua sektore bat garela esan ahal izateko. Sektore kohesionatua eta baliabideak behar dituen sektorea. Ez da Espainiako arazoa, ez da Nafarroako arazoa, nazioartekoa baizik.

Hemen planteatzen dizuedan guztia datu zenbatetsiak dira, joerak, azkar mugitzen diren datu sektorialak, eta oraindik ere bada lerratua dagoen informazioa, datu ofizialak nork dituen, zeren pixka bat falta baita daturik ez dakarten beste sektore eta eragile batzuekiko erkaketa. Beraz, hemen ikusten dugun guztiak ez du bere osoan gure errealitatea adierazten.

Kolonbiatik dakardan esaldi bat aipatuz hasi nahiko nuke. Colombia Vime musikagintzaren nazioarteko topaketa bat da, munduan laugarrena kopuruetan, bolumenean, eta lehenbizikoa, Latinoamerikako musikan edo sormenezko industrian, non merkatu iberoamerikarraren erakusleihoa baita. Eta Charmetric-eko presidenteak esaldi bat aipatu zigun; enpresa hori da data mundu mailan eskaintzen duen enpresetako bat, New Yorkekoa,... bai Spotifyrako, bai eta streaming eta musika erakunde guztietarako ere. Eta esan zigun: merkatu latino oso bizirik dago, kultura Latinoamerikan bizia da, organikoa da. Zer desberdintasun dago Europarekiko? Askoz ere egitura-tuagoa dagoela, askoz ere erregulazio handiagoa dugula; dena dela, nola edo hala, galtzen ari gara ikusgai dauden geruzetan gertatzen den ekosistema guztia, eta horixe da Artaxoa, horixe da auzoa, hainbat musika fusionatzen ari diren hiri bateko aldiria... Orduan, ekosistema hori berreskuratu egin beharko genuke Europa zaharra maila globalean gaztetzeko.

Diskurtsoa lau esparrutan kokatzen hasiko gara, laurak ere arras garrantzitsuak kulturaz hitz egitean. Zuetako zenbat ari zarete kulturaren, zenbat zarete eragile? Gehienak, ezta? Nor ez dago kulturari lotua? Inor ez. Sektoreak? Kudeaketa? Kultur kudeaketa? Kultur kudeaketa hutsa? Ados, musika, ikus-entzunezkoak, dena? Ahal dena, ez? Zenbat pribatu? Erakunde pribatuak? Publikoak? Ez duzue elkarren artean ikusten, baina gutxi gorabehera aretoko 35-75 gaude. Eta maila nazionalean, eskala nazionalean, dugun kultur egituraketan gertatzen denaren isla bat da.

Hau da, sektorea erabat dago pizgarri pribatua egituratu eta elikatzeko modua topatzen hasia den egitura publikoen mendean. Eta hori garrantzitsua da. Une positiboa

da, oso une ona, eta egituraketa publiko-pribatu hori bultzatzen segitu behar dugu. Arras garrantzitsua da. Zergatik? Publikoen datuengatik gizartearen datuengatik baino gehiago.

Zer esanahi du kulturak? Ezin da kulturaz mintzatu sektorea garela ulertu gabe. Orduan, sektoreari buruzko zertzelada batzuk emanez hasiko naiz eta, era berean, lurraldeaz, geografiaz hitz eginen dugu, espazioetan gertatzen ari denaz. Elkarriketa sakon eta luzerako emanen luke, baina zertzelada txiki batzuk emanen ditugu lurralde mailan gertatzen denaz. Ez Nafarroan, lurraldeetan baizik, hau da, kultura kontsumitzen den espazioetan, kultura maite den espazioetan.

Publikoaren joerez mintzatuko gara. Badago publiko dibertsifikazio handia eta oso polarizatua dago, inoiz baino gehiago. Zer esan nahi du horrek? Publiko familiarak ditugula, handi samarrak, eta erakusten dute estatistika mailan ez dagoela kulturarekiko interesik. Eta erronka handia dugu publiko gazteekin, centenial ospetsuekin, badute kulturarekiko interesa baina ez dute device-ekin konektatzen, kultur erabilerekin, alegia. Elkarren artean oso desberdinak diren bi kontu dira.

Eta, azkenik, kulturen diren gizarte joerez mintzatuko gara pixka bat, zer joera diren, eta zabal ere hitz eginen dugu komunikazioaz, zeren kulturak duen arazo handietako bat komunikazioa baita. Kulturen, etengabe ari gara lehian gure artean eta beste eragile batzuen artean ez-arretaren ekonomiari buruz. Eta ez-arretaren ekonomia da bere logelan dagoen mutil hori, sare sozial bat ikusten ari dena edo film bat ikusten ari dena edo bere talderik gogokoena aurikularrak jarrita entzuten ari dena.

Orduan, garrantzitsua da lau ardatz horiek kontuan izatea, joera globalak zein diren ulertzeko, eta Nafarroako lurraldeari, Nafarroa sektoreari, nola eragiten dioten pixka bat ulertzeko.

Maila panoramikoan. Ekonomia, kulturgintzaren ekarpenari buruzko datu ofizialak, sektorea oso dibertsifikatua dago, baita lanbide jardueraren kodeetan ere, eta hori arazo handia da, zeren musikaren lanbide jarduera desberdina baita ikus-entzunezkoarekin, desberdina ondare arlokoarekin; orduan, kultura saski-naski han-



dia da, non hain dibertsifikatua egotearen ondorioz, indar handia galtzen baitugu lobby gisa,edo sektore gisa jarduteko. Baina hori ebidentzia bat da, errealitate bat.

Kulturen ikerketaz, hezkuntzaz eta industriaz hitz egin behar dugu, eta batez ere, ekonomiaz. Datu ofizialen arabera, berriz ere diot, ekonomiaren % 3 eragiten dugu, ia % 4, datu zenbatetsiak dira, gutxi gorabeherakoak. Hau da, Espainiako BPGren ekonomiatik ia % 4 sorkuntzako industriak dira. Asko edo gutxi dira? Nahikoa da. Baina, jakina, datu horiei, nahikoa izanen bada, jabetza intelektualari dagozkion datuak ere ematen ari gara. Bestela, % 2,5etik behera gaude. Garrantzitsua da, hala-ber, esparrua izan dezagula. Jabetza intelektual hori berariaz dator argitaletxeek, musikak eta ikus-entzunezkoek emana. Eta hemen ekuazioaren lehen zatian jarri dut, zeren, gure erronka nagusia, erronka handietako bat, jabetza intelektual babes-tea baita, adimen artifizialak muturra tartean sartu duen honetan. Horra eztabaida nagusia: nola babestuko ditugu egileak? izan ere, zerbait egiten saiatzen ez bagara horri buruz, 18 hilabeteen datu hori nabarmen jaitsiko da.

Industriaren ikuspegitik, marrazki gutxi-asko erreza egite aldera, sektorea oso atomizatua dago, ikaragarri atomizatua, eta horrek esan nahi du mikrosegmentatua dago-ela; sektore heldua da baina gutxi egituratua. Zer esan nahi du horrek? Gaikuntza handia falta dela. Eta hori, halaber, erregulazio teknikoetan islatzen da; batez re, kul-turaren lanbide teknikoetan. Hau da, artistak sortu ahal izatea ahalbidetzen duten

hornitzaile guztiak. Eta hori oso modu begi-bistakoan gertatzen da.

Joan den egunean, nazioarteko *booker* batek Kolonbian esan zidan gaur egungo arazoa dela ezertan ere ez dagoela arauketarik, ezta prezioetan ere. Orduan, adibidez, kontzertuetako soinu-teknikari on-onak ez du preziorik; berak jartzen du prezioa. Eta orduan behar dena ordaintzen diote eta beraiekin eramaten dute, eta gainerako soinu-teknikariek ahal dutena egiten dute. Orduan, ez dago arauketarik prezioetan, ezta soldatetan ere. Orain, hori guztia egituratzen saiatzen ari gara. Sektorea ez dago aski prestatua, hori da errealitatea, ez dago aski arautua, oso polarizatua dago, atomizatua, pribatizatua... Sektorea pribatizatua dago; nahiz eta egitura publikoen oso mende dagoen, sektore pribatua da eta gutxi espezializatua.

Ikerketari dagokionez, gauza berbera gertatzen da, gutxi gorabehera. Kultur arloko ikerketa ondare historikoan eta artistikoan ardaztu da. Ondare handi-handia dugu, ondare miresgarria historian eta artean, baina ikerketa gutxi dago etorkizunari begira, ikerketa aplikatu gutxi. Zergatik? Bereizketa bat dagoelako. Hau da, ez dago loturarik sektore barnean beharrak identifikatu behar dituen industriaren eta ikerketaren artean. Ikerketak ez dira enpirikoak, ondare-ikerketak baizik. Oso onak, sekulako ekarpena egiten dutenak, baina ez dago loturarik sektoreak egun dituen beharrekin, etorkizunean industriarako irtenbideak bilatzeko ildoarekin bat.

Hezkuntza. Dakizuen bezala, diziplina artistiko batzuk ez daude unibertsitate-sistemari lotuta; musika, bereziki, baina baita beste diziplina artistiko batzuk ere, hala nola antzerkia, dantza eta beste. Beren kontserbatorioak dituzte. Zer gertatzen da? Ba, musikan bana beste baditugula araupeko 70-74 kontserbatorio Espainian; dantza eskolak gutxiago, baina horrela da, eta antzerki eskolak, zertxobait gutxiago, baina 50 inguru. Zer esan nahi du horrek? Herrialde artistiko eta kulturala garela, zoragarria zaigu, baina espezialitate gutxi dago, piramide gutxiago dago bikaintasunerantz. Zergatik? Ikastetxeak zentro arautuak direlako, berehala lortzen dute ofizialtasuna, baina ez daude unibertsitate-sistemari atxikiak. Boloniako sistemari atxikiak ez daudenez, inork ere ez ditu behartzen ikerketa estandarrak izatera. Legez ez dute estandar jakin batzuk hezkuntzaz kanpo. Eta horren eraginez, oinarrian badugu kezka eta eskari eta eskaintza kultural ona, baina ez dago piramiderik bikaintasunean. Beraz, gutxi dira bikaintasun zentroak, jendea gaitzen duten zentro gutxi, eta

espainiar gutxi iristen dira zentro horietatik, zer gertatzen da ondoren? Hemen gelditzen dira lanean? Ez, jakina.

Enpleguari dagokionez, kultur sektoreak 800.000 lagun enplegatu zituen, 2024an; gutxi gorabehera hortxe gaude, hau da, Espainiako enplegu guztiaren % 3,5. Kontsumoari dagokionez, Espainiako familiak 12.000 milioi euro baino gehiago gastatu dituzte kultur ondasun eta zerbitzuetan, eta ez da gutxi. Badago kontsumo kulturala, eta hainbat arlo nabarmentzen dira, hala nola zinema, liburuak, irudi eta soinu tresnak... Finantzazioari dagokionez, sektoreko diru-sarreraren % 65 administrazio publikoetatik datoz; % 15 *ticketing* da, hau da, sarreraren salmenta, hori nahikoa esanguratsua da. Zer esan nahi du? Egitura publiko bat badugu ere, audientziekin lotzen diren produktuak ekoiztu behar ditugula. Interesa. Hau da, jaisten ari da kulturari buruzko interes orokorra.

Oro har, 2023an, kulturak 34 milioi bidaia baino gehiago eragin zituen (oraindik ez ditut 24ko datuak eskuratu), eta horri lotutako gastua 32.500 milioi eurokoa izan zen. Hau da, kulturak jendea mugiarazten du eta badago horri lotutako kontsumoa. Baina ez dugu kultur kontsumo horien eraginaren *crossover-a*: horrela, bat Cadizera doanean bidaian flamenko ikuskizun bat ikusteko, eta orrek, hau da, berariaz Cadizera egindako bidaia horrek nola eragiten duen beste ekonomia batzuetan. Horri arras garrantzitsua da kulturak beste sektore batzuetan zeharka zer ekarpen egiten duen jakiteko.

Musikari kasua ekarriko dut hona, adibidez. Txostenik? Asko. Zer gertatzen da ikerketarekin? Zer gertatzen da datuekin? ez gara bolbora asmatzen ari, denok arazo berbera identifikatzen dugu aspalditik hona eta ahalegin handia egin da ikerketaren hutsunea betetzen saiatzeko kulturak gure herrialdean egiten duen ekarpenaz. Baina gehienek sektorearen beraren idiosinkrasia islatzen dute: deskriptiboak, atomizatuak eta konplexuak. Zergatik? Informazioa eskura ez dagoelako. Oso zaila da informazioa eskuratzea. Enpresa pribatuek ez dute informaziorik ematen, enpresa publikoek beren enpresa pribatuen gainean duten informazioa dute; beraz, lerratzea badago.

Badago eskalagarritasun zail bat, datuok ezin dira ongi eskalatu. Zergatik? Datu sektorialak izan daitezkeelako. Adibidez, DANAREN ondorioz, Valentzian -eta Ibie bezalako erakundeei esker, baina beste erakunde askori esker ere- data asko sortzen ari

Los informes existentes, descriptivos y atomizados, reflejan la complejidad y el esfuerzo del sector:

- Dificil acceso a la información de las empresas y el sector
- Dificil escalabilidad y baja representatividad
- Datos sesgados por el tipo de actividad: disminución del alcance
- Escaso análisis
- Falta de orientación a resultados o dinamización del sector
- Falta de especificidad sectorial sobre "música"
- La mayoría ofrece poca riqueza metodológica
- Difusión atomizada: no existe espacio de referencia y visibilización que los ponga al servicio de las empresas.



SECTOR

Problemas compartidos con matices

1400 EMPRESAS menos de 5 trabajadores // España 2,5%
Solo crecen los autónomos (60%) / sueldos medios 20K / 35%
Capacitación muy superior a la media nacional
Políticas de género muy por encima de la media
Sector público / inversión en cultura
Inversión gasto medio por hogar 75/50
Falta de interés / Música el sector más valorado en Navarra
Frente al audiovisual y la lectura



Diagnóstico

DATOS COTEC-IVIE

España es el 4º país de Europa en producción cultural y sin embargo es uno de los últimos en la cola en exportación.

Existe un mayor impacto sobre otras economías territoriales invirtiendo directamente en cultura.



ESTADÍSTICA
2023
ANUARIO DE ESTADÍSTICA CULTURAL

da gertatu denaz, hau da, zein den horrelako hondamendi batek komunitatean duen eragina. Datu horiek oso baliagarriak ere izan dira kultur arloko datuak berreskuratzeko. Orain, Valentziako autonomia erkidegoak datuak ditu eta adibide datuak eskaintzen dizkie beste autonomia erkidego batzuei. Baina, jakina, ez da beharrezkoa hondamendi bat gertatzerik horrelako informazioa izateko.

Datuen adierazgarritasuna, oro har, apala da, analisi gutxi dago... Hau da, nik beti adibide bera ematen dut: bat goizean jaikitzen da, albiste bat ireki, eta albisteak hauxe dio: bost gomendio urdailean errefluxua ez izateko. Esaten du, zeinen ongi, ez baitut errefluxurik; ea, zer egin behar dut ez jan pepinorik, adibidez. Hori da kulturaren gertatzen ari ez denaren iceberg punta. Hau da, batek datuak dituenean.... hori nazi-oarteko ikerlan batekin edo hainbatekin hasi zen, klinikan, ohartu baitziren, aurre-test bidez, eta hori interpretatzen da, behar bati aplikatzen zaio, soluzio bati. Eta azken erabiltzaileari gomendio bat iristen zaio, eta gomendio hori gutxi-asko egokia izan daiteke, baina gutxienez erkatua dago. Horrelakorik ez dugu kulturaren. Hau da, gertatzen denaren mapa ikusi duzue, data edo txosten zehatz bat oso baliagarria izan daiteke, baina ez dugu egin erabiltzaile-gomendio horretara iristeko moduko ibilbidea. Zeren, enpresek ez baitute deus egiten datu horrekin, datu horretatik oso urrun daudelako. Ikerketa ibilbide hori falta da, eta ikerketa hori aplikatua da. Kontua da azken gomendio horretara iristea kulturaren, zeren datu batetik abiatuz premia bat identifikatzetik hasi baitugu oinarria. Eta ibilbide hori oraindik ere ez da gertatzen ari eskala globalean.

Horrenbestez, analisia falta da, eta analisia eta interpretazioa oso-oso garrantzitsuak dira, eta ez dugu halakorik. Ez dugu sektorekako berariazotasunik, hau da, kultura saski-naski handi bat da, premia desberdin asko daude, bai eta ekosistema konplexuak ere. Eta ez da gauza bera musika eta ikus-entzunezkoa, ez da gauza bera argitaletxea, hau da, denok kezka berberak izan ditzakegu, baina oso sektore ezberdinak dira. Antzerkia, adibidez. Antzerkiaren sektoreak dituen ezaugarriak oro har dira arte eszenikoek dituztenak, baina oso berariazkoak, oso zehatzak. Zuzeneko arteek, oro har, ikus-entzunezkoak oso bestelako dinamika dute, artea aldi baterako artea baita eta kontsumo mota ere aldatzen du. Orduan, ekarpen sektoriala falta da eta ez dago aberastasun metodologikorik. Ez dugu aberastasun metodologikorik.

Orduan, errealitatea horrelakoa denez, emanen dizkizuedan datu guztiak datu zenbatetsiak dira. Gatozen Nafarroara, sektorerara. Hasteko eta bat, sektorea. Gutxi gora-behera kulturagintzan ari diren 1.400 enpresak, edo gehixeagok, 1.500 inguruk, 5 langile baino gutxiago dituzte. Horrenbestez, enpresa txiki-txikiak dira, atomizazioa. Espainiako enpresen % 2,5 kulturalak dira eta 6 langile baino gutxiago dituzte. Nafarroan identifikatu ditugu; eta datu horiek guztiak plan estrategikotik atera ditugu, hainbat iturritatik, guztiak ere iturri publikoak... PowerPointaren bukaeran, erreferentzien berri emanen dizuet. Hainbat erreferentzia eta iturritako datuak gurutzatu ditugu. Nafarroako Gobernua alimaleko ahalegina egiten ari da sektorea ordezkatzeko duen plan estrategiko bat izateko. Ez da gertatzen autonomia-erkidego guztietan, eta ahalegina da, prozesua konplexua eta luzea baita. Eta gu ere ohituta ez gaude-

lako, hau da, Nafarroako gizartea ez dago ohituta administrazioetako ateetan jotzera eta esatera: “Ei, lagunduidazu, arazoi bat dut, sektore gisa batu eginen gara!”. Ez gaude ohituta kulturalki horretara. Beraz, datuak falta dira.

Baina ikusi da autonomoak bakarrik hazten direla. Hau da, hazten ari da, kulturen badira lanbideak, baina hazkunderaren % 60 profesional autonomoei dagokie. Kulturako profesional guztien soldatak, bana beste, 20.000 garbi dira. Soldata apal samarra da eta soldata horien % 35 emakumezkoen postuak dira, emakumeak, alegia. Batez besteko profesionala baino gaikuntza handiagoa dugu, hori hala da, txostenean ageri denez: genero-politika oso egituratuak ditugu eta batez besteko nazionala baino askoz ere gorago daude, ez dirudien arren. Sektore publikoak kulturen egiten duen ekarpena nabarmen da handiagoa batez besteko nazionala baino, baita autonomia-erkidegoen aldean ere. Jakina, datuak lausotzen dira Madrilgo eta Kataluniako Erkidegoekiko, kultura oso zentralizatua baitako maila nazionalan. Baina inbertsioa handiagoa da. Izan ere, familiek bana beste 75 euro gastatzen dute inbertsioan buruko. Espainiako batez bestekoa 50 da, eta Madrilen eta Bartzelonan, berriaz, 158. Nafarroari dagokionez, batez bestekoaren gainetik gaude; beraz, dirua gastatzen dugu kulturen.

Oro har, ez dago interesik kultur edukien gainean, eta inkesten arabera, hori nabarmena da. Musika sektorerik baloratuena da Nafarroan (datu esanguratsua da), ikus-entzunezkoaren eta irakurketaren aldean, bi horiek ere nahikoa ongi onartuak eta baloratuak badira ere. Nafarroan gehien estimatzen eta baloratzen diren hiru sektoreak dira.

24ko kultur interesen mapa estatistikoa argitaratu berri da; bukaeran ikusiko dugu. Aurtengo urtarilean plazaratu da, eta klik batean duzu Estatistikako Institutu Nazionalan, eta kultur kontsumoaz mintzo da. Eta hor joeran zetozen datuak berretsiko ditugu, orain hizpide ditugunak, hots, ez dagoela oro har interesik: edukien artean, liburuak, ikus-entzunezkoa eta musika estimatzen dira gehien.


Beste datu oso esanguratsu bat: astelehenean, goizeko 11etan COTECek oso datu interesgarria eman zigun. COTEC *datan* ari den enpresetako bat da, eta hizpidera ekarri dut lankidetzan aritu delako egungo gobernu presidentziarekin, kulturari, ekin-

tzailetzari, berrikuntzari (teknologikoak, bereziki) buruz. Kultura nola dagoen azaltzen duen bigarren txosten globala heldu den astelehenean argitaratuko da, eta halako aurrerapen bat egin digu; nik uste dut datorren astearen bukaeran egonen dela erabiltzaileen eskura, baina bestela, azalduko dizuet, presidentziarako hitzordua eman baitigute datu horiez hitz egiteko, dagoeneko itxita dagoen proiektua aurkezteko. Oso datu esanguratsua aurreratu ziguten, hots, lehenbiziko aldiz frogatu da Espainia Europako laugarren herrialdea dela kultur ekoizpenean, baina azkenetako bat da kulturaren esportazioan. Eta hori Kolonbiako esperientzian egiaztatu ahal izan dut. Hau da, gure herrialdea dago Latinoamerikako beste herrialde batzuek egin dituzten esportazioen oso azpitik. dena dela, gure artisten kalitatea, musikari dagokionez, bikain-bikaina zen.

Baina daturik interesgarriena hau da: eragin handiagoa dago. Hau da, ikuskizun bati, kultur ekitaldi edo egitasmo bati zuzenean euro bat ematen bazaio, COTECek egiaztatu du, zuzenean kulturen inbertitu den euro horrek eragin handiagoa sortzen duela bestelako lurralde-ekonomietan. Hau da, espantsiboa da. Eragin handiagoa du zuk euro hori berbera kulturen ekarpena duten bestelako pizgarrietan edo bestelako ekonomietan inbertitzen baduzu baino. Erran nahi baita, zuzenean kulturen egiten den inbertsioa espantsiboa da eta bestelako ekonomietan du eragina. Orduan, datu hori emanen digute, eta plazaratu eta xehetasunez azalduko dute. Nik uste dut kulturarekiko eragin hori oso interesgarria dela, politika monuei eta etorkizunari begira.

Museoak: lau datu gehiago, orain globalak. Museoak hazi dira, hazten ari dira. Izan ere, jende gehiago joan da museoetara 2023an baino, % 13 gehiago. Eta zergatik? Gertatzen ari den gauza batek bultzaturik, kultur guneen esanahia eraldatzen ari baita, eta arras garrantzitsua da hori kontuan hartzea. Espazio fisikoen esanahia publiko berriendako eraldatzen ari dira, eta hori arras garrantzitsua da. Xabierko Museoak, Nafarroakoa... hor daude bisitariei buruzko datuak. Jendearen jatorria: % 40 inguru bisitari nazionalak; beste % 40, Nafarroakoak, eta % 12, nazioartekoak. Datu onak dira, oso onak. NICDOri buruzko datu batzuk daude, azpiegiturak... Eta gauzarik garrantzitsuena da batez beste buruko gastatzen dena, hots, 75 euro,, arestian ikusi dugun bezala.


Nafarroak jarduera nabarmena du kultur sektorean, estatuko batez bestekoarekin alderatuta. Garrantzitsua da, eta ongi gaude zenbakietan. Hala ere, Nafarroako kul-



tur gastu publikoa buruko txikiagoa da Espainiako batez bestekoa baino. Nafarroan nabarmentzekoa da kultur programetan dagoen parte-hartze handia, eta esanguratsua da bertako hizkuntzen erabilera, euskara, kultur elementu bereizgarri gisa. Konpromiso handia dago, parte-hartzea dago, bai eta kulturarekiko gustua eta diru-sarrerara handia ere, eta kultur gastu handia ere bai. Hau da, garrantzitsua da kultura guretzat, baina bestelako arriskuak ditugu. Bestelako erronkak.


laz, egindako txosten bat ekarri dizuet, talentuak kulturen dituen zutarriei, Cotec-ek eta Ivie-k egin. Sei zutarrak daude. Bata, erraztea; nola errazten ditugun kultur egiturak, ingurune arautzaileak, merkatu-inguruneak, merkatu pribatuak sustatuz, negoziak egiteko inguruneak... eta lan-merkatua, oso garrantzitsua, kulturarekin loturiko kultur azokak, sormenezko industriak... Bigarren zutarrak: erakartzea. Komunitateak duen kanpo eta barne irekiera kultura bultzatzeko. Hirugarren zutarrak: haztea; nola eragin hazkundera, kulturen hazkundera eragiteko hezkuntza formala, ikaskuntza bizitzan zehar, hazkunderako aukerak eskuratzea. Laugarrena, laugarren zutarrak, jasagarritasuna atxikitzea eta bizimodua, hau da, Nafarroan kulturen sustapena bultzatuko duen bizimodua izatea, eta lanbideez ari naiz, kultur talentuaz. Bosgarrena, gaitasun teknikoak: maila ertaineko kualifikazioak eta enplegarritasuna. Eta seigarrena, ezagutza: goi-mailako kualifikazioak eta talentuaren eragina.

Gure rankingean, Madril sailkapen buru da sei zutarrietako hirutan; Euskal Autono-



Gure rankingean, Madril sailkapen buru da sei zutarrietako hirutan; Euskal Autonomia Erkidegoa haztea zutarrian, eta Nafarroa, nabarmen da sailkapen buru, besteen gainetik, atxikitzea zutarrian. Jasagarritasuna eta bizimodua. Zer esan nahi du horrek? Kultur talentua sendotzeko zutarrak guztietatik, lehenbizikoak gara autonomia-erkidego guztien artean atxikitzeari, jasagarritasunari eta bizimoduari dagokienez: hemen oso ongi bizi dela. Beraz, ekosistema ezin hobea dugu kultur gaikuntzak egituratzeko, hau da, kulturen kultur lanbideak egituratzeko. Bigarrenak gara erakartzeari dagokienez. Dena dela, oso gaizki gaude hazteari dagokienez (seigarrenak gara), eta gaitasun teknikoetan, bosgarrenak. 2023an, datuak 23an eguneratuak baitaude, Nafarroa hirugarrena da sorkuntzari eta talentua kulturen egituratzeari dagokienez. Ados egon gaitezke gutxi gorabehera, baina datu estatistikoak dira, horixe da egoera eta joera bat erakusten dute, kultur fluxuak nola mugitzen ari diren.

Oso azkar hitz eginen dugu publikoez, oso garrantzitsua baita publikoez ere hitz egin. Eta bereziki publiko berriak hartuko ditut ardatz, hau da, audientzia gazteak. Publiko berriak, kultura nola eskuratzen duten ikusteko. Audientzia gazteak publiko berriatzat jotzen dira, terminologikoki zuzena ez bada ere. Eta lau datu emanen dizkizuet, guztiak ere erkatuak, baina nagusiki BBV Fundazioak 2024an argitaratutako azterlanetik ateratakoak. Azterlanak halako ikuspegi bat egin du, azterketa bat, belaunaldi berriek mundua ikusteko duten modua, hainbat arlotatik begiratuta: gizarte arloa, kulturala, osasun arloa... Nazioarteko bi azterlanekin erkatuak dauden ondorio batzuk azalduko dizkizuet, baina Espainia interesatzen zaigu. Berriazko datu nazio-



nal gutxi daude geure gazteez. Ezkontzen kontuan atzerapena eta murrizketa gertatu da, izugarri aldatu da familia moten modalitatea, atzeratu eta murriztu da gazteen emantzipazioa, gazteen arteko emantzipazio tasa inoizko apalena da (32 urte), gureak baino lan zailtasun handiagoak dituzte, haien pertzepzioa da. Sektore gisa, sektore horren bolumena murriztu da, bizi-itxaropena asko handitu delako; horrenbestez, sektore estuagoa da, haur gutxiago ditugu, gazte gutxiago eta, horrek eraginda, gazteek sentitzen dute ahots txikiagoa dutela, gutxiago entzuten zaiela, sektoreak pisu txikiagoa dauka, eta haiek sumatzen dute pisu txikiagoa dutela beste interes-talde batzuen aldean.

Mugikortasun izugarria dago; haiendako, ekuazio barruan egonen badira, nazioartean mugitu beharra dute, baina itzultzeko asmoz, hori ez da aldatu. Osasunari buruz, oso garrantzitsua, sekulako kontzientzia dute osasun mentalaz, beste interes talde batzuek baino askoz ere handiagoa, baina, kontrara, ikaragarri normalizatzen dituzte alkohola kontsumitzearekin eta automedikazioarekin lotutako ohitura ez osasungarriak. Haientzat, arraz gauza normalizatua da automedikazio etengabea.

Aisiak eta kulturak, bestalde, haien bizitzaren atal oso garrantzitsua betetzen dute, baina kultura konpainian ulertzen dute beti, eta haiendako, aldatu egin da familia estratua, familia eredua, haiendako lagunak dira beren familia. Lagunak aukeratzen dituzte, eta horixe da haien familia; horregatik, oso lokarri estuak ezartzen dituzte beren interes zirkulutzat jotzen dituztenekin; beraz, haiendako ez dago jokoan kultura

PÚBLICOS

BRECHA SOCIAL

Públicos / Falta de interés

Nuevos públicos / falta de conexión

OCIO
EDUCACIÓN
COMPORTAMIENTOS SOCIALES
SALUD
FUTURO
INTERESES
PREOCUPACIONES

kontsumitzea, sozializazio espazio batean ez bada, lagunekin. Garrantzitsua: lehen-bizi, musika; bigarren, serieak ikustea; hirugarrena, lagunekin sozializatzeari, hau da, lagunekin edatea, gimnasioa nesken kasuan, irakurtzea emakumeen kasuan... Askok desmitifikatzen dituzte zuzeneko ekitaldi handiak; desmitifikatu dituzte, ez dutelako konektatzen zuzeneko ikuskizunekin, bereziki masifikazio handiak badira, ez baitituzte beren artistak ikusten, oso urrun daude, ezin duzu lagunekin hitz egin.

Hezkuntzari dagokionez, kultura hezkuntza, sumatzen dute orain zatiezina dela prestakuntza teknologikoa, kultur arloan aritu nahi badute, hau da, gaitasunen barnean sumatzen dute. Garrantzi handi-handia ematen diote digitalizazioari, baina aldi berean uste dute hezkuntza-sistemaren % 100ek ez diela erantzuten trebakuntza digitalaren beharrei. Orduan, haien ustez, autodidakta moduko gaitasunak direla, eta ikastetxetik kanpo eskuratu behar dituztela, unibertsitatetik kanpo, maila digitalean prestatuak egon ahal izateko. Eta haiendako zatiezina da; kulturarekin zerikusia duen ekintza orok gaitasuna digitalak behar ditu. Eta haien iritziz, hori gakoa da lan sisteman sartzeko, maila guztietan.

Kulturako lan ordainduei dagokienez, bitxia da zinez: dirua baino gehiago izugarri baloratzen dute lanpostua haiei interesatzea. Ez bazaie interesatzen, batez bestekoa baino lanpostu edo soldata askoz ere altuagoak exijitzen dituzte hasieratik. Bestela,

ez dute egiten edo ez daude egiteko prest. Alde horretatik, erresilientzia profesionala galdu dugu. Lanak duintzen du, haiendako lanpostuak ordaindua izan behar du nahi-taez, dirurik behar ez badute ere. Azterlanean hori oso modu nabarmenean ateraz. Etorkizunari buruz, lau datu. Ez dute balorazio onik uzten ari gatzaizkien ondareaz edo etorkizunaz. Haien ustez, saldu diegun etorkizunean bizi-kalitatea kaskarra goa izanen da gurea baino edo haien gurasoena baino. Inkestatuen, gazteen, % 73k (oso lagun adierazgarria) uste du gazteak okerrago biziko direla gurasoak baino.

Inkestatuen % 70 ere bat dator esatean gazteen arazo nagusia lan-merkatua dela; ondoren, hezkuntza-sistemako arazoak, etxebizitza eskuratzea, eta drogen eta alkoholaren kontsumoa. Oso kontzientziatuta daude jasangarritasunaren gaiarekin ere, planetarekin. Kezkak, garrantziaren arabera: teknologia, klima-aldaketa, zientziari eta aurrerapen zientifikoei ematen dieten balioa, lagunen garrantzia -haientzat funtsezkoa da-, diskriminazio egoerak, aniztasunarekiko tolerantzia, hau da, inklusioa, gizar-tearekiko eta erakundeekiko konfiantza versus mesfidantza. Mesfidantza izugarria dute eraketa-egiturekiko, eta mesfidantza ikaragarria politikarekiko; haiendako, politikak prestakuntzari lotuta egon behar du.

Baina arazo horiek guztiak gorabehera (katastrofista iduri duena beste ezer baino gehiago), interes talde horren gogobetetzea askoz ere handiagoa da beste interes talde batzuen baino. Gustura daude beren bizitzarekin, gustatzen zaie. Gogobetetzea handia da; gu egon gaitezkeen beste interes talde batzuen baino askoz ere handiagoa. Nire iritziz, garrantzitsuak dira gazteen gaineko datu horiek zerikusia duten beste azterlan batzuei lotuta edota askoz ere gehiago nabarmentzen dutenak zer gertatzen den, zergatik ez diren joaten gazteak zuzeneko ikuskizunetara, edozein delarik ere. Guk asmo ikertu dugu musikan, baina zuzeneko ekitaldietara ere estrapolatzen da.

Eta hona ekarri ditut interes faltarekin zerikusi handia duten ondorioetako batzuk eta, batez ere, haiek ikuskizunarekin sortzen duten elkarrekintza motarekin. Fenomeno horri “discoformosi” deritzo, industria internet moldera eraldatzea, hau da, nola eraldatzen ari den, nola guk sortzen ditugun arlo digitalaren eta fisikoen arteko hibridazioarekin zerikusia duten kultur lokarri horiek. Nola erabiltzen ditugun tresna digitalak jendea ikuskizun fisikora erakartzeko, hori esperientzia erabat bereizgarria izan dadin. Gazteak ez dira kontzertuetara joaten, zuzeneko kontzertuetara, adibidez, ikus-



ten dutenarekin bat egiten ez dutelako; eta, gainera, datu hori ageri samarrekoa da. Bat ez egite horrek zerikusi handia dauka familiak aurretik halakoetara eramanez izatearekin. Era berean, ikusi da (Bourdieuaren gaian, adibidez; teoria asko baitaude orain Bourdieuri buruz) familiak ez bazaitu eramaten, eta ez baduzu zuk kultur espazio fisiko bat ezagutzen, zuk ez duzu familia-loturarik sortuko harekin. Estu-estuki dago lotua.

Kultura eskuratzea ekuazioaren erdigunean dago. Hau da, ikuskizunak, zuzeneko ekitaldiak eta espazioak eskuratu ahal izatea funtsezkoa da kulturaren esanahia eraldatzeko, gazteendako kulturaren esanahia eraldatzeko. Kontzertu birtualek eta aurrez aurrekoek bizikide izan behar dute. Hau da, gaur egun ez dugu arteen munduan, arte eszenikoetan bereziki, kasu estandarizatu arrakastatsuak, non komunikazio digitala erabiltzen den ekitaldi ordezkazina indartzeko, hots, lagunekin fisikoki egoteko esperientzia hori. oro urrun gaude oraindik. Kasu arrakastatsuak daude, baina oso gutxi.

Publiko femeninoa maskulinoa baino fidelagoa da. Centeniala izugarri desleiala da. Baina, bestalde, loturak ezartzen dituenean, superfan bihurtzen da, hiperfan. Lotura emozionalak sortzen direnean, dena erosten du. Dena kontsumitzen du, iragazkirik gabe. Beraz, kontsumoa ere oso bipolarra da, izugarri desleiala, baina, bestalde, lotura emozional hori ezartzen denean, bere diru guztia gastatzen du artista horretan,




ikus-entzunezkoen sorta horretan, pertsonaia horietan. Gertatzen da. Ondoren, sumatzen dute kulturaren oro har, zuzenekoak, jende gehiegi dagoela, garestiegia dela, urrunegi dagoela artistarengandik, erreferenteengandik. Kontzertu handiak ez dira nahitaez etorkizunerak gakoak, publikoarekiko loturari dagokionez.

Lurraldeen gaiarekin lotuko dut, oso garrantzitsua delako. Kultua irudikatzeko espazio fisikoak berrosatzen ari dira. Batez ere, gazteen mugikortasunarekin lotua, audientzien mugikortasunarekin lotua, eta halaber, publikoek espazio hori bizitzeko dute moduarekin oso lotua. Orduan, orain galdera bat eginen dizuet. Zer neurritan duzue kultur kudeatzaileek espazioen esanahia eraldatzeko begirada? Ziur bainago kultur espazioak dituzuela ardurapean? Gai hori, lehenago edo geroago, toki guztietara iritsiko baita. Eta gainera, kultura egituratzeko irtenbideetako bat da. Betidanik antzerki hutsa programatu den antzoki batean, orain jakina ez dugu bakarrik antzerkia programatzen, baina espazio fisikoa birpentsatu beharra dago, hori eserita dagoen ikuslearekiko elkarrekintza, gureaz bestelako oso lotura desberdinak dituen eta gureaz bestelako oso modu desberdina duena kultura kontsumitzeko. Dugun arazoa da belaunaldi-aldaketa baten erdian gaudela. Orduan, betiko publikoek ez dute ukitzerik nahi arteari lotutako konbatez ere espazio publikoetan eta zuzeneko topaketetan. Baina oso-oso garrantzitsua da.

Nafarroako Gobernuaren webguneetako batek eskaintzen duen Atlas Kulturalean argi eta garbi ikusten da nola dauden kultur espazioak... Argazki bat izan arren, oso panoramikoak da: kultur espazio guztien fitxa teknikoak ikusten duzu, duten jardueraren arabera. Oso argia da. Pilaketa ikusten da: arte eszenikoak, musika eta ikus-entzunezkoak erabat metaturik. Nafarroako Gobernuak egindako ariketa bati sor zaio hori eta oso interesgarria da, baina interpretatu beharra dago. Mapan ikusten duzun bezala, urdina den guztia artxiboak dira, ondare historikoa, etab. Espazioak egituratuak ditugu. Espazioak badaude. Espazioei ematen diegun esanahi kulturala birpentsatu beharra dago. Eta begira, arte eszenikoak, metatu samarrak daude kultur jardueraren arabera, baina gainerako espazio guztiak nagusiki artxibo eta museotarako daude. Orduan, interesgarria da, oso interesgarria da espazioak birpentsatzeari eta egituratzeari begira, tokian tokikotik pentsatu beharra baitago lurraldea, hori oso garrantzitsua da; hain modan dagoen kontzeptu hori, *glokal*: tokikotik abiatuta, nola lortuko dugu globalak izatea? Nola eginen dugu? Nahikoa frogatua baitago masifikazio handiek murrizteko joera dutela, publiko gazteek ez dituztela nahitaez ekitaldi masibo handiak behar identifikatuak sentitzeko, loturak *one to one* esperientzietan sortzen ditugula, familian izan behar duten esperientzia fisikoetan, eta haiendako, familiak lagunak dira. Estatus sozial horretan pentsatu beharra dago. Eta haientzat, erabat zatiezina da teknologia ekuaziotik. Nola erabili? Hori beste kontu bat da.

Azkenik, joerez mintzatuko gara, zein diren joerak, komunikazioarekin dute zer ikusi handia. Dakizuenetz, 2023ko jomuga dela eta, bi arazo handik eragiten dute kulturaren adimen artifizialari lotutako jabetza intelektuala, hau da, AA sortzailea versus euskarriko adimen artifiziala, bi gauza ezberdinak baitira. Adimen artifizial sortzailea geldiezina da, eta euskarriko adimen artifiziala, egiaztatua dago 18 hilabetean baino gutxiagoan merkatua ia % 100en ordezkatuko duela hainbat sektoretan, hala nola musikan, ikus-entzunezkoan eta arte digital guztietan. Zer esan nahi du horrek? Adibide bat emanen dizuet. Euskarriko adimen artifizial bat da oraintxe bertan gizon bat ari dela pintxatzen telebista-saio batean, musikak zuzenean hedatzen; musika horiek musika-katalogoen bankuekin egituratu dira eta, gainera, pertsona bat musika horiek ari da zabaltzen zuzeneko grabazio bat girotzeko. Pertsona hori ez da existituko girokoak diren musika horiek sortzen dituen euskarriko adimen artifizial bat dagoelako. Eta hori bezala, beste gauza asko. Oraingoaren ordezkoa izanen da? Lanik gabe geldituko gara? Inola ere ez. Baina sistema profesionala berrosatuko da. Eta adimen artifizial sortzaileak informazio-nodo guztiak erabiltzen ditu, nodo horietatik abiatu eta (edozein direlarik ere) musika berria, ikus-entzunezko eduki berriak, argazki berriak



eta abar sortzeko, patroi batzuk erabiliz.

Hau da GESACek 2024ko otsailean argitaratutako beste azterlan bat, sorkuntzako profesionalei egindakoa; sortzaile horiek poetak, idazleak eta musikariak dira. Sistema musikalari aplikatutako AAren kasuan, hau da, musikari aplikatutakoan, orain bertan AA sortzailea 640 bilioi sortzen ari da eta, musikari dagokionez, 300. Horrenbestez, egundoko negozioa da, negozio handietako bat da. Eta aurreikuspenen arabera, 2028an 3,1 bilioira iritsiko gara. Ados? 3.1 musikaren 300 milioiren aldean. Hau da, bi urte eta erdi barru, 3.1 bilioitan egonen gara. Beraz, AA iritsi eta geldituko da, eta gainera, etorkizuneko negozioa da. Balio-kate guztian dago: sorkuntza prozesuan, ekoizpen eta garapen prozesuan, esportazio prozesuetan..., bereziki, sormen prozesuetan eraginda. Baina iristear dago esportazioa egituratzeko gai guztia.

Une honetan ditugun gai nagusiak copyright-a, baimenak, eredu gardenak, jabetza nork duen, egileak eta sortzaileak nola babestuko diren. Eta kultur sektorean diharduten enpresa guztiei hiperespezializazioa gomendatzen ari zaie bene-benetan. Izan ere, hiperespezializazioan, tokikoan, gauza zehatzean, lurralde arloan, askoz zailagoa da prozesu batek, hots, kultur prozesuei aplikatutako AA deritzon negozio bolumen batek, eragin kaltegarria izatea, eta prozesu horrek txikituko gaitu. Orduan, Europak egiten duen gomendioetako bat hiperespezializazioa da. Eta inola ere ez kontrakoa: ETE bat naiz, hilaren amaieran fakturak ordaindu behar ditut, edo hiru autonomo gara, hirurak kultur kudeatzaileak, zentro pare bat kudeatzen ditugu, kulturalki

SOCIEDAD

TENDENCIAS

TIK TOK, VIDEOS CORTOS
MULTIPLATAFORMA COHERENTE
CONTENIDOS ORIGINALES
AUTENTICIDAD
CONTENIDO GENERADO POR EL USUARIO
REDES SOCIALES COMO CANAL DE VENTA
MICRO INFLUENCERS

AUMENTO

LINKEDIN RED SOCIAL EN CONVERSACIÓN
WHATSAPP: PERSONALIZAR LA COMUNIDAD
BUSCADORES INTERNOS VERSUS HASHTAG

LO QUE SI PERO NO

METAVERSO
REALIDAD VIRTUAL INMERSIVA
BUSCADORES INTERNOS VERSUS HASHTAG
TWITCH

LO QUE NO

TWITTER Y FACEBOOK
STREAMING

AI AND MUSIC

MARKET DEVELOPMENT OF AI IN THE MUSIC INDUSTRY AND THE IMPACT OF MUSIC TECHNOLOGY ON THE CREATION OF CONTENT AND MUSIC

Tobias Holzmüller / GEMA
Cécile Rap-Weber CEO / SACEM
Febrero 24

IA en los procesos de creación musical: 15.000 profesionales + 16 expertos

En el proceso de la IA reactiva a la generativa:
640 billones: 300 millones IA musical. En 2028: 3.1 Billones

Presente en toda la cadena de valor: edición, producción y composición
Nuevas formas de creatividad: no sustitución pero sí transformación
Uso como soporte es muy secundario (17%)

Copyright / consentimientos / Modelos transparentes / Monetización
Streaming y la concentración del mercado

Demandas y recomendaciones: hiper-especialización
Políticas reales de sostenibilidad / alianzas con tecnológicas

dinamizatzten, eta nire zerbitzuak gehiago dibertsifikatuko ditut hilabete amaierara iritsi ahal izateko. Hori ia sormen arloko industria guztietan gertatzen da: zerbitzu gehiago eskaintzen ditut, gaikuntza apalagoa, hau da, guztiz kontrakoa, hilabete amaierara iritsi ahal izateko. Ez, Europa esaten ari zaizuna hauxe da: hiperespezializatu zaitez kontu batean, denbora guztian balio bereizgarria emateko, eta hazi hor, gauzak gaizki etorri arren; izan ere, horrek eragingo du gero zuk gaitasun askoz handiagoa izatea egituraketa egiteko.

Eta, halaber, gomendatzen ari dira eta zinez eskatzen aliantzak sortzea enpresa teknologikoen kontra, arauketa teknologikoetan sartzea, jasangarritasun arloko benetak politikak izatea, fenomeno digitalen gaiari lotu-lotuak. Txosten honek gai handietako batekin du zerikusi handia, hau da, jasangarritasuna eta adimen artifizialarekin, zuzenean eragiten baitio kulturari.

Joerak zein diren azalduko dut eta azken kapitulu honekin amaituko dut. Kulturaren eta mikrokulturaren, mikroeragile kulturalen erronka nagusia arretaren eta komunikazioaren ekonomiaren erronka ere bada. Hau da, nola komunikatzen garen, nola iristen garen publiko horiengana, nola konektatzen dugun haiekin, mundu guztiak erabiltzen dituen tresnak erabiliz. Komunikazioa oso garrantzitsua da kulturaren eta arreta txikia ematen zaio. Eta ez naiz ari komunikazio kanpainez eta ikusgarritasuna iza-

teaz; baizik eta esan nahi dut ulertu behar dela zein erabilera ematen dieten audientziek *device* teknologikoei, hau da, gailu teknologikoei, eta nola erlazionatzen diren haiekin, eduki hori ulertzeko. Oso garrantzitsua da. Kulturen gertatzen da, eta asko gertatzen da, eta gehiago gertatzen da beste autonomia erkidego batzuetan, bitartekorik ez dugunez, komunikatu egiten dugula eta komunikazio bera erabiltzen dugula sare guztietan, hau da, kanalak biderkatzen ditugu eta denak berdin erabiltzen ditugu, hau da, sare sozialak, kanpaina grafikoak, dena, modu berean mezu bera zabaltzeko. Ez dago egokitzapenik. Eta egokitzapenik ez dagoenean, audientziek ere ez dute erabilerarik egiten.

Orduan, zein dira maila globalean kultur gaietan gutxi-asko funtzionatzen ari diren joerak? Bideo laburrak. Bideoa da, hau da, enkapsulatua mugimenduan, irudia mugimenduan eta enkapsulatu laburra, horixe da publiko gazteek hobekien ulertzen duten edukia. Eta gora doa. Gehienez minutu bateko bideoak. Eduki horiek funtzionatzen dute. Dinamismoa. Zergatik? Centenialek hobekien ulertzen duten hizkuntza irudi mugimenduna eta musika direlako. 60ko hamarkadako boomer belaunaldiak hobekien ulertzen duen hizkuntza testu irakurria, irakurketa eta ahotza dira. Egizuzuk moldearen belaunaldia dira. Horrexegatik, eta nik ezin nuen ulertu, duela bost urte ingurura arte munduko antzoki onenetako webguneak negargarriak ziren. Eta nik ez nuen ulertzen. Eta *white head* logikari erantzuten zion. Buru zuriak fenomeno gisa, horiek ordaintzen baitituzte ikuskizun garestiak. Orduan, 65 urteko edo 60 urteko andre bat sartzen bada, programazioa irakurri nahi du. Beraz, egokitzapen hori berandu gertatu da. Zergatik? Komunikatzeko belaunaldi-logika bati erantzuten diolako.

Milurteko belaunaldia bezalaxe, hau da, 30 edo 40 urte ingurukoak. Hemen, ikusten dudanez, milurteko asko daude. Ni milurtekoa naiz. Milurtekoa pasiboa da sareetan, izaki pasiboa da. Kontsumitzaile pasiboak gara. Zer esan nahi du horrek? Begiratzeko dugula esan nahi du. Bisualak gara. Hobekien ulertzen dugun irudiaren elementu bisuala informazio bisuala da, argazki estatiko bat. Izan ere, mintu egiten gaitu argazki bat azaldu behar izateak. Edota edukirik gabeko argazkiak. Edukiaren osagai funtseko zatitzaileak. Eta bideo-jokoaren belaunaldia gara. Hortaz, soinu efektuak, soinu kontinuum hori garrantzitsua da. Narratiba guztia sortzen hasi zen belaunaldia gara, ikuskizunaren logikak nola ulertu azaltzeko narratiba aldatu zen. Bideo-jokoen lehen belaunaldia gara. Horren bilakaera digitala milurtekoak dira,

eta milurtekoak aspertzen dira. Zergatik? Bera delako protagonista. Bideo-jokoak, gamifikazioak ulertarazi dio bera dela protagonista. Beraz, etengabe pistak argitzera dago ohitua. Narrazio-egitura logiko eta klasikoak aspertu egiten du, bera aurretik doalako. Gamifikazio-egituragatik, oso ezberdina baita.

Horrenbestez, ulertu behar da zein diren kodeak, ulertu behar da nola funtzionatzen duten hizkuntzek, eta zer publiko izanzen ditugu. Publikoen begirada bat egin behar da, arreta handia jarri behar da audientzien segmentazioan, jakiteko zer neurritan dagoen elkarbizitza hori eta zer neurritan arriskatu dezakedan gehiago nire komunikazio eta programazio politiketan.

Funtzionatzen duena, joerak: eduki originalak eta zintzoak. Publiko berriekin funtzionatzen dute. Funtzionatzen duena: benetakotasuna eta erabiltzaileek beraiek sortutako eduki parte-hartzaileak. Horrek ere funtzionatzen du. Betiko testigantzek bideoetan funtzionatzen dute. Funtzionatzen duena: sare sozialak salmenta-kanal gisa. Funtzionatzen ari da eta oso ongi gainera. Funtzionatzen duena: adiskidetasunezko edo benetakotasunezko espazio horietara hurbiltzea, WhatsAppko talde horiek, mezu zuzen horiek; kultur politika batzuetan hauxe litzateke: nola egiten dut nik hau-u? Bada, publiko berriekin funtzionatzen du. Mikroinfluencer-en estrategia. Mikroinfluencer da auzokideen edo auzoko dendaren ikuspegitik zutaz duten iritzia. Baina ez pentsatu influencerra dela bi argazkiren truke dirua kobratzen duen ospetsua, ez. Sarbide-egitura bat, esperientzia-egitura bat. Egia esan, esperientzia global batean balio bat sortzea dugu hizpide etengabe. Kultura esperientzia gisa bizi dadin lortzea, inoiz baino fisikoagoa baita audientzia berrientzat.

Zer zabaltzen ari da? LinkedIn sare profesionalaren erabilera; komunikaziorako bozgorailu sare gisa nahiko ari da funtzionatzen. LinkedIn izaera kulturalarekin erabiltzeko eta elkarriketa profesional horiek sortzeko. Komunitateak WhatsApp bidez pertsonalizatzea funtzionatzen ari da. Barne bilatzaileak, barne bilatzaileak sortzea. Baina, errealitate birtualek ez dute funtzionatzen, ez dira kulturen sartzen ari. Kultur sektorean ez dute funtzionatzen. Metabertsoa, errealitate murgilgarriak... publikoetan ez dago eskaririk, ez du funtzionatzen. Twitchek ere ez du funtzionatzen, sare sozial gisako bat da, baina jada ez du funtzionatzen. Eta argi eta garbi dago dagoeneko ez dutela funtzionatzen Twitterrek, Facebookek eta streamingek, emankizunek. Emankizunek ez dute funtzionatzen. Ez dute funtzionatzen publikoak erakartzeko

TEMAS DE REFLEXIÓN

- INCENTIVAR INICIATIVAS PÚBLICO-PRIVADAS (MECENAZGOS, INCENTIVOS, ASALARIAR)
- RETO DE LA DEFRAGMENTACIÓN / COMUNICACIÓN Y SOCIEDAD
- JÓVENES Y VÍNCULOS: SIGNIFICADO DE LA CULTURA /USOS
- RETO DE LA RESIGNIFICACIÓN DE LOS ESPACIOS
- DESCENTRALIZACIÓN
- RETO INTEGRACIÓN EDUCATIVA
- TALENTO: CAPACITAR - EXPORTAR
- MIRADA POSITIVA / COMPROMISO Y PREOCUPACIONES SOCIALES
- LA PARTICIPACIÓN NO FUNCIONA / EXPERIENCIAS COMPARTIDAS
- TENDENCIAS NO CENTRADAS EN TECNOLOGÍA SINO EN PROCESOS / USOS

eta fidelizatzeko tresna gisa.

Egia esan, kultura ez da hainbesterako aldatu, baina bai, ordea, kultur elkarrekintza-rako fluxuak. Aldatzen ari dira, eta azkar, gainera. Zer gairen inguruan gonbidatzen zaituztet gogoeta egitera? Egituren ikuspegitik, asko sustatu behar dira aliantza publiko-pribatuak. Eskaintza ez da mikrosegmentatu behar, guztiz kontrakoa baizik: aliantza publiko-pribatuek funtzionatzen dute: kultur mezenasgoek. Oso garrantzitsua da mezenasgoa Foru Komunitatean sartzea; enpresa pribatuak ohartzea zeinen garrantzitsua den kulturari ekarpena egitea. Oso garrantzitsua da, erronka hori dugu aurrean. Soldatak eskaintzeko egitura bat sortu behar da, hau da, soldatak ordaindu behar dira, beldurra galdu behar da; bestela, enpresen oinarritzko egitura etengabe da ezegonkorra. Garrantzitsua da sektore pribatuaren ikuspuntutik.

Kultur arloko defragmentazioaren erronka komunikazio erronka da, bai eta publiko-engana iristeko erronka ere. Hau da, ez enpresena, oso atomizatuak baitaude: berriz diot, erronka handia komunikazioa eta publikoengana iristea da. Eta arreta oso txikia jartzen da jakiteko nola ikusten duten audientzia berri horiek mundua, programatzeari begira, diseinatzeari begira, haiekin solas egiteari begira. Erronka handi bat dugu, eta erronka hori, niretzat, proposamen interesgarrienetako bat da etorkizunerako: espazioen esanahia aldatzea. Nik ere uste dut ez dagoela erantzunik, baina uste dut hausnarketa ireki handi bat dela, eta zuei egitea gustatuko litzaidake. Eta erronka handia dugu talentuari dagokionez, gaitasun handiagoa izan behar dugu Nafarroan

jendea gaitzeko eta hemengoa esportatzeko, etorkizuneko politiken ildotik. Begirada positiboa da, baina sektore gisa lan egiteko konpromisoa hartu behar da. Begirada positiboa da, ongi goaz, baina gehiago egituratu behar dugu sektore gisa, indar handiagoa izateko. Eta jakina, sortzen eta kontrastatzen hasi behar da, hau da, esperientzia partekatuak sortzen publikoetan, baina datuekin kontrastatuta. Horixe da, halaber, maila globalean dugun beste erronka handietako bat. Sektorea duintzeko eta sektore gisa lan egiteko gai diren datuak lortzea eta ikerketa egitea. Eta honaino, gutxi gorabehera panoramika.



Kultura sarean: lurralde-lankidetzazko esperientziak

Mahai ingurua

Lurraldeen arteko lankidetzaproiektu eta -ereduekin. Hizlariak: Adolfo Velez, Corralizas y Electra sozietatearen ordezkaria; Marisa Iturbide, Itineris Coma elkartearen sortzaileetako bat; eta María Amatrian, Erdialdeko Partzuergoko teknikaria.



MODERATZAILEA:

Gaur, Marisa Iturbide, Adolfo Vélez eta María Amatriain izanen ditugu solaskide eta lurraldea izanen dugu hizpide, lurraldea landa esparruan eta landa esparrutik; kulturaren inguruko hainbat esperientzia dira, kultura gizarte kohesiorako tresna gisa eta, zenbaitetan, itzulkin ekonomikoa eta soziala ekarrita, eta halaber, bi aldiz kulturala. Gurekin dugu Marisa Iturbide, Itineris COMA erakundekoa. Marisak garatzen dituen proiektuek zerikusia dute gizarte berrikuntzarekin, sormenarekin, lankidetzarekin, hazkundearekin, bai eta gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetako jasagarritasunarekin ere.

Profil asko ditu, eta gaur Itineris COMA erakundearen sortzailekidea den neurrian ekarri dugu hona; irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta Artaxoako eta bide historikoek zeharkatutako beste herri batzuetako kultur baliabide historiko eta sozioekonomikoen balioa nabarmentzea du helburu, izan baliabide turistikoak, izan enpresa arlokoak, izan hezkuntzakoak. Itineris COMA *Asociación Navarra de Municipios del*

Camino de la Vera Cruz elkartearen sustatzaile, bultzatzaile eta koordinatzailea da. Bide hori ardatz fisiko egituratzailea da. Marisa, azalduko diguzu mesedez zer den erakundea, zer egiten duzuen eta nola egiten duzuen?

MARISA ITURBIDE:

Ni mexikarra naiz, baina jatorriz nafarra. Hil honen bukaeran, bederatzi urte beteko dira Artaxoan bizi garenetik. Amaren aldeko sortetxean bizi gara. Guk Itineris COMA izeneko elkartea sortu genuen. “Coma” hori adin ertaineko lankidetzak da gizarte berrikuntzako, turismoko eta enpresa arloko proiektuak bideratzeko. Hiriaren inguruneetik gentozen beti, hainbat herrialdetan bizi izanik, eta iruditu zitzaigun une hura gure adinerako oso interesgarria zela (orduan 63 urte genituen), gure esperientzia guztia eta gure ezagutza guztiak landa ingurunean hedatzeko eta, gainera, hiri inguruneak landa inguruneekin lotu edo konektatu ahal izateko itxaropena izateko. Orduan, Itineris COMAren bidez geroago zehaztuko ditudan hainbat proiektu abiarazi ditugu. Oso inplikatuak gaude eta nabarmen parte hartzen dugu Artaxoan eta beste udalerrri batzuetan diren ekitaldi guztietan; haiekin konektatu baitugu gauzatzen ari garen proiektuetako batekin.

MODERATZAILEA:

Eskerrik asko, Marisa. Adolfo Vélez Corralizas y Electra elkartearen ordezkaria da Artaxoa aldean, zuzendaritza batzordeko kidea da. Toki esparruko erakundea da, aspaldi-aspaldikoa, 1913an eratua, eta badu zer kontatu handia landa giroko lankidetzak sareez. 1.900 hektarea larre eta korralizaren aprobetxamendua kudeatzen du, 541 hektarea alor lur, eta baso erabilerarako beste 200. Energia elektrikoa ekoizten dute beren jabetzako bi zentral hidroelektrikotan: bata Mendigorrian dago eta bestea Larragan. Lehen korralizak 1865ean erosi zituztenetik ageriako da guztion ondasunaren aldeko lana. Izan ere, erosleek ez zuten erosketa horien bidez beren probetxua xede, herriarendako onura baizik. Joaquín Sarasa notario jaunaren aurreko eskritura bidez, 1870eko apirilaren 10ean, Artaxoako 25 bizilagun eta zergadun han-

dienei partaidetza berdinak eman zizkieten, eta haietako bakoitzari aipatu lau korraliza horien erreserba egin zitzairen. Adolfo, bideoaren sarrera emanen duzu, mese-dez .

ADOLFO VÉLEZ:

Ongi esan duen bezala, Corralizasko batzordekoa naiz eta Corralizas zer den azaltzera nator pixka bat. Baina, nik azaldu baino hobea izanen da bideo bat ematea, Artaxoako Erresumaren inaugurazioaren inguruan egindakoa, jende guztiari azaltzeko Corralizas zer zen .

BIDEOA: “Formalki, Corralizas Elkartea bazkide zibilen elkarte bat da, arau orokor edo estatutu batzuen arabera arautua. Baina artaxoar bati elkarte horretaz galdetzen diozunean, hainbat sentimendu sortzen dira: lan ona, konpromisoa, herriarendako zerbitzua, ekintza batasuna eta artaxoarren arteko topagunea. Nola sortu zen? Madozen desamortizazioaren ondoren, 1855ean, Artaxoak ongi pentsatutako irtenbide estrategikoa eman zion Udalaren herri-ondasun batzuk enkantean ateratzeari; eta, horretarako, 1865ean sortu zen gaur egun Corralizas Elkartea osatzen duenaren emamuina. Artaxoar batzuek Udalaren korralizen enkanteak irabazi zituzten, eta, ondoren, komunitateko gainerako kideei eskualdatu zitzaizkien elkarte hori eratzeko. Gero, Corralizas Elkartea jarduera asko sustatu eta kudeatu ditu Artaxoan, baita jarduera asko dinamizatu ere, eta eraldakuntza garrantzitsuak egin ditu gizarte, ekonomia eta kultur arloetan. Adibideren bat ematearren, ur hornidura eta saneamendu zerbitzua eman zuen, herriko elektrizitate banaketa egin zuen argiteria publikoarekin batera, eskolak eta merkatu publikoa eraiki zituen 1888. urtean. Hiltegia ere bai, irin-fabrika, eta oinetakoen fabrika eraikitzeke lurak utzi zituen.

Azken garai honetan, gizarte, kultur eta aisia arloa landu ditu gehienbat, hala nola kiroldegiaren finantzazioa, ermitako ikastetxearen erosketa, Artaxoako musika bandari herriaren historiari buruzko obra musikal deskriptiboa erosi dio, hots, Kingdom of Navarra, Jacob de Haan konpositoreak ondua. Eta gaur egun, Reyno de Artajona gune eszeniko berria. 150 urteko ibilbidearen ondotik, guztiz indarrean diraute elkar-tearen sorrera bultzatu zuten xedeek, eskuzabaltasunez beti Artaxoako gizarteari eta herriari zerbitzua emateko. Elkartek hiru zutabe ditu oinarri ekonomiari begira: azientarendako larre korralizen ustiapena, lehorreko lurren eta ureztalurren nekazaritza

ustiapena, eta azkenik, industria-ekoizpena, Arga ibaian kokaturiko hiru zentral hidro-elektriko txikiren errendimenduan oinarritua. Kontua da, beraz, ahalik eta errendimendu ekonomikorik handiena ateratzea ustiapen horiei, eta irabaziak herriarendako eta herriko taldeendako onura publikoko obra edo ekintzetara bideratzea.

Elkartea zuzentzen duen batzordeak xede aldaezin hori oroitarazi die bazkideei beti. Adibidez, 1934ko urriaren 26ko akta batean ikusten dugu Batzordeak honako erabaki hau hartu zuela aho batez: “Aipatu korralizak ez dira Artaxoako herriarentzat, hau da, ez ziren erosi jabetza herriari eskualdatzeko; baizik eta, herriarentzat dira, lortzen diren urteko irabaziak berariaz inbertitu behar direlako artaxoarren erabilera eta aprobetxamendu publikoko obretan”. Elkartearen helburuekin bat, azken ahalegin ekonomiko handia *Reyno de Artajona* gune eszenikoa eraikitzea izan da. Auditorioak 400 pertsona inguruko edukiera du, harmailak zabaldua, eta 200 ingurukoa, harmailak jasota. Horri esker, Artaxoak herri honetako jendeak duen talentua indartu eta ezagutarazi ahal izanen du. Auditorioan, mota guztietako ekitaldiak egiten ahalko dira: antzezlanak, musika-kontzertuak, dantza-ikuskizunak, zinema-emanaldiak eta beste ekitaldi artistiko, akademiko edo kirol-ekitaldi batzuk.

Elkartearen filosofiari jarraikiz, herriko talentua indartuko duten ekitaldien bidez egingen da inaugurazioa, herriaren batasuna ikusarazteko eta eraikin hori eraikitzeke eta artaxoarren eskura jartzeko helburua gogorarazita. Corralizas y Electra elkartearen izenean, gure konpromisoa agertu nahi dugu bai guztion aurrerapenarekin, ongizate komunitarioarekin, eta egungo zein etorkizuneko belaunaldi onura ekarriko dien ondare ukigarri bat sortuz. Gure xedea argia baita, hots, herriarendako eta herriaren alde lan egitea, gure komunitatearen nahiak islatuko dituen garapen jasangarri eta inklusiboa sustatuz. Zinez uste dugu bultzatzen dugun eraikin bakoitza, instalazio bakoitza eta proiektu estrategiko bakoitza ez direla egitura hutsak, baizik eta Elkar-tearen gaitasunaren ikurrak, jendearen bizitza hobetuko duten ideiak errealitate bihurtzeko”.

MODERATZAILEA

Burura etorri zait azken kultur biltzarra, Uharten egin genuena, Navarrico kontserbe-kin, eta nola antzeko eredu bat (ezberdintasunak, gorabehera) etorri zaidan gogora. Beraz, Kunatik periferiako hiriburutza ezarriko dugu, eta ikusiko dugu nola San Adrian lehia nabarmenean arituko den kontu horretan Artaxoakoekin.

Azkenik, María Amatriain aurkeztuko dut, Erdialdeko Partzuergokoa. Erakunde publiko bat da, 96an sortua, eskualdearen garapen integral eta berdinzalea bultzatzeko, ekonomia eta gizarte arloko eragile guztiek parte hartuz. Gaur egun, Nafarroako Erdialdeko 38 udalerrri daude sartuta. Baina toki erakundeez gain, Partzuergoan sartuak daude irabazi-asmorik gabeko elkarte, erakunde, fundazio eta entitate pribatuak, Nafarroako Erdialdean garrantzi berezia dutenak. Hau da, sarerik bada, horixe, eta gainera Artaxoa ere horri lotua dago. Proiektu asko ditu eta gaur horien berri izateko aukera izanen dugu, baina, Maria, esanen diguzu nor zaren erakunde horren barnean eta partzuergoa zer den, mila esker.

MARÍA AMATRIAIN

Eskerrik asko gonbidapenagatik; batez ere, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako foro hau, hain zuzen ere, zuk esan duzun bezala, periferia batean egitea; izan ere, badi-rudi beti hiriei begira gaudela, eta badi-rudi, gu landa-eremua, kulturaren esparrutik ateratzen gaituztela eta beste gauza batzuetarako zokoratzen gaituztela. Orduan, eskerrik asko Partzuergoari ni gonbidatzeagatik. Ni turismo teknikaria naiz, Historian lizentziatua naiz Ondarearen adarrean, garai hartan horrela zelako, eta Kultur Ku-deaketan egin nuen masterra. Zorionez, arkeologiaren munduan lan egin ondoren, Partzuergoan hasi nintzen lanean; urte asko dira jada.

Eta Partzuergoa, ongi esan duzun bezala, Nafarroaren bihotzean kokatua dago. Nafarroako Erdialde osoko aurrerapen integral eta berdintasunezkoaren alde lan egiten du. Eta gaur egun helburu hori lortze aldera, kultur ondarean du, hain zuzen ere, funtsezko zutabeetako bat. 38 udalerrri biltzen ditu; gurea bezalako erakunde batean parte hartzea borondatezkoa da, hau da, udal bat sartu edo atera daiteke, hala uste badu, eta ulertzen badu gure erakundearen helburuak ere bere helburuekin bat dato-zela. Orduan, beste lurralde batzuekin elkarlanean aritzen gara eta, gainera, beti en-

tzuten diegu udalerriei eta haien beharrei erantzun, edo saiatzen gara, behintzat.

Kontatu nahi dizuet 30 urte daramatzagula eskualdeko garapenaren alde lanean; iaz, urrian, ospatu genuen. Eta poz handiak eman dizkigu. Lehenago, datuaren garrantziaz hitz egin dugu. Ez dizkizuet denak emanen, asko izanen liratekeelako, baina zer egiten dugun kontatuko dizuet. 30 urte honetan, landa garapenerako bost programa jarri ditugu abian. Horrek esan nahi du 15 milioi eta erdi euro baino gehiago banatu ditugula Europako laguntzetan. Horietako asko Erdialdeko eskualde honek dituen baliabide garrantzitsu eta bereziei balioa emateko. Batzuk Artaxoako zerko-rako joan dira; adibidez, irisgarritasuna hobetzeko eta zerkoaren beraren interpreta-zioa egiteko. Edo, are, informazio turistikoaren gunerako. Ekin nahi dutenei ere la-guntzen diegu, negozio berriak abian jartzeko eta enpresa berriak sortzeko. Urtean, kalkulatzeko 20 enpresa inguru jartzen direla abian. Tokiko merkataritzaren txandakatzea ere babesten dugu, baita digitalizazioa ere; gure ustez, hemen erostea da beti aukerarik onena. Landa lurraldean erostea, alegia.

Energia eraginkortasunari eta berriztagarriei buruzko aholkularitza ematen diegu fa-miliei, negozioei eta udalei. Erreferentziazko erakundea gara berdintasunezko landa-garapenaren aldeko lanean, eta herritarrei, udalei eta enpresei berdintasun arloko aholkularitza eta prestakuntza ematen dizkiegu. Gure iritziz, berdintasunean lan egi-nen bada, zeharkakotasunez lan egin behar da proiektu guztiekiko; ez era parale-loan. Bere garaian Nafarroako Ardoaren Ibilbidea sortu eta kudeatu genuen, ardoa-ren kultura bisitatzen gaituztenekin lotzeko asmoz; kultura horrek asko homogeneiza-tzen gaitu eskualdean, baina uste dut, halaber, gure mugak gainditzen dituela, eta oinez eta bizikletaz egiteko bidexken sare bat ere kudeatzen dugu, udalerrriak eta kultur baliabideak lotzen dituenak. Izan ere, sarea gaur egun areagotzen ari da, lotura ideia horretan oinarritua, bai eta mugikortasun jasangarrian oinarritua ere. Eta 30 urte daramatzagu gure herrietako tradizioak eta historia ospatzen, 300 ekitaldi baino egin baititugu, ondarea irisgarri eginez eta Erdialdeko eskaintza hau Nafarroako di-namika turistikoan sartuz. Azken buruan, hiru hamarkada hauetan, hemen, Erdial-dean bizi den jendearen bizi kalitatea hobetzeko lan egin dugu, eta gure etorkizu-neko proposamena gauza bera egiten jarraitzea da, hau da, aurrera egiten saiatzea Erdialdea bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko lekua izan dadin.



que la Zona Media sea un lugar donde vivir, donde trabajar y donde disfrutar.

MODERATZAILEA:

Eskerrik asko, María. Garrantzi handi-handiko kontzeptu asko ukitu dituzu eta, gainera, KUNAre eguneroko jardueran leku handia dutenak. KUNAn beti defendatzen dugu elkarren artean mankomunatzeko edo kideatzeko kontzeptua, lurraldeak batera artatzeko: esan duzu ondareak herritarrek erakar ditzakeen tresna dela eta, halaber, Nafarroan erronka handia den funtsezko alderdi bati arreta emateko, hots, despopulazioari arreta ematea. Badakizue Nafarroan lege bat prestatzen ari dela despopulazioaren aurka, eta despopulazioa da desberdintasuna eragiten duen arrazoi nagusietako bat; beraz, oso ongi lotu duzu alde horretatik berdintasunaren kontzeptua, eta KUNAn hori erabat da zeharkako alderdia. Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik; ikusten dudanez, KUNArekin batera sortu zarete; eta lan garrantzitsu hori ere egiten duzue, hots, ekintzailatza sustatzea, landa eremuetan, udalerri txikietan, eta horixe da oinarrietako bat Isabelek arestian aipatu duen talentua atxikitzeke... Tira, iruditzen bazaizue, pixkatto bat gehiago sakondu dezakegu oraintxe lantzen ari zareten ku-deaketa proiektuetan, proiekturen batean, eta nahi baduzue, euskarri bisualen bat erabil dezakezue, eta proiektu kaxotxen artean arrakastatsuak erakutsi guri. Gure iritiz, arrakastatsuak dira halakoz zentzu eta koherentzia eta norabide zuzen bat duten proiektuak, alde batera utzita gero gainera emaitza onak izatea diruari begira, arlo sozialari begira, etab. Marisa, nahi baduzue, azaldu lantzen ari zarete proiektua eta euskarri bisuala emanen diogu le damos el soporte visual.



le damos el soporte visual.

MARISA ITURBIDE:

Hasteko esan nahi dut herritarrengandik abiatzen den ekimen bat garela. Zergatik gaude hemen? Zergatik ari gara hau guztia egiten? Lehen esan dudana bezala, nire amaren aldeko familia Artaxoatik dator; izan ere, nire aitona Corralizasko lehen presidenteaizan zen, eta ni oporretan etorri nintzen hona, nire gurasoak zenbait urtez etorri ziren, eta 2008an, hona iritsi ginen Javier, nire senarra, eta biok, oporretan, eta konturatu ginen kartel batzuk zeudela *Camino de la Veracruz* idatzia zutenak. Eta harritu gintuen inork esan ez izanak hemen Veracruzeko bide bat zegoela, erromesbide bat. Ikertzen aritu ginen, eta Donejakue bezain bide garrantzitsua zela ikusi genuen, munduko bost erromesbide garrantzitsuenen artean baitzegoen. Eta pentsatu genuen lehenengo gauza izan zen hura produktu turistiko handi bat zela Erdialderako eta Erriberarako, une hartan, 2008an, ez baitzuten hain presentzia handia.

Bartzelonatik Artaxoara bidaiatu nahi izan genuen. Hori 2016ko maiatzaren amaieran izan zen; bitxia bada ere, oso hirikume moldeko pentsamolderekin, ez Javier ez ni, ez baikenen inoiz herri batean bizi izan; bai, ordea, herri txikiagoetan, baina erabaki genuen hemen kokatuko ginela, eta ea posible ote zen bizi-proiektu bat egitea. Ekittea asko gustatzen zaidanez, nire errealizazio pertsonalaren edo sozialaren konnota-



tazioa izateaz gain, ikusteko ea negozioak edo enpresak sor ote zitezkeen. Guk, bai Javierrek eta bai nik, jatorri editoriala dugu; izan ere, 2000. urtean Bartzelonan bizi ginela, joeren aldizkari bat argitaratzea erabaki genuen, baina 50 urteko jendeari zuzendua, *baby boomer*ei zuzendua, garai hartan ez baikeunden gu ordezkatuta ez argitalpenetan, ez modan, ez ezertan. Eta bost urtez, karga grafiko eta diseinu handiko aldizkari bat argitaratu genuen, eduki oso trinkoekin, eta bitxia bada ere, espero genuenaren kontrako efektua izan zuten. Diseinuak gazteak erakarriko zituela uste genuen, eta testu trinkoek, hekduak; ba, alderantziz gertatu zen. Eta oso esperientzia bizia izan zen; eta enpresaren ikuspegitik, huts egin zuen .

Eta hona iritsi ginenean, pentsatu genuen: horrelako proiektu bat komunikatzeko modurik onena argitalpen baten bidez da. Eta *Itineris Journal* izeneko argitalpen baten maketa ere egin genuen, eta esan genuen, tira, nola eragin diezaioke bidaiak ezagutzari eta aldaketari? Maketa egin zen, hainbat lekutan aurkeztu genuen ea finantzaziorik lortzen genuen, baina ez ziguten entzun. Beraz, 2017an, Veracruzeko bidea ardatz hartuta, erabaki genuen egitura juridiko bat sortuko genuela proiektuari ekiteko. Nik beti esaten dut, eta orain Adolfo Velez Artaxoako alkate izandakoaren aurrean esaten dut; berak barre egiten du, baina egia da: guk, Javierrek eta biok, 2016an, Veracruz bidea biziberritzeko proiektu bat egin genuen, eta agian logikoena izanzen alkateak eta zinegotziak bizkarrean halako txapada bat ematea, eta esan: ea, tira, zoazte jubilatzerara eta ez jarraitu enbarazurik sortzen. Baina Iñaki Maiora ere zinegotzi zegoen, proiektua aurkeztu genien eta, gure poza handirako, aurrera esan



zuten. Hortaz, hasi ginen, 2012an bidea seinalatzatu zuen teknikariarekin hitz egin genuen, 2012an seinalatzatu baitzen lehen aldiz bide hori osorik, irizpide batzuei jarraituz, hots, zuzen-zuzen joateko eta ahalik eta lastarren Caravaca de la Cruzera iristeko, baina baina ez zegoen inolako inplikaziorik ezein udalen aldetik, eta traza-dura alternatibo bat egitea erabaki genuen.

Eta Adolfok eta Iñakik Javier eta biok lagundu gintuzten hainbat udal bisitatzerara, proiektua aurkezteko, ekonomia suspertzeko zuen aukera ikus zezaten, eta 2019ko hauteskundeak igarotzean, bisitak berriro egin genituen, eta 2021ean *Veracruz Bideko Udalerrien Nafarroako Elkarte*a eratzea bultzatu genuen, hainbat helbururekin: jakina, turismoa sustatzea, lurralde kohesioa, herrietan biztanleria atxikitzen saiatzea... Eta une honetan Nafarroako 25 udal ari gara lanean bide hori errealitatea izan dadin. Badakigu aurkari handia dugula, zentzu onean, Donejakue Bidea, eta egia da funts guztiak eta diru guztia Donejakue Bidera joaten direla, eta horrelako proiektu berriak ez direla aintzat hartzen, konplexuak baitira, luzeak, zortzi urte daramatzagu. Bidea oinarritzeko moduan seinalatzatua dago, eta aurten oso baikor gaude, Veracruz Bidearen lehen kongresua antolatu nahi dugu, funtsean bideak zeharkatzen dituen bost komunitateetako udalerriak erakartzeko eta bat-eginik lan egin ahal izateko. Elkar-teak aholkularitza enpresa bat kontratatatu zuen plan estrategiko bat egiteko, eta horrek, noski, gauza kokatzen lagundu digu. Eta badakigu denbora daukagula aurretik, baina oso burugogorrek eta oso saiatsuak gara.



Baina halaber erabaki genuen, *Itineris COMA*ren bidez beste mota bateko proiektuak hasi behar genituela. Aukera bikaina zegoen, horrela bizi izan genuen guk. Nik, Bartzelonan, lan handia egin nuen lidergo eta marketin digitala eta komunikazioa lantzen ziren inguruneetan, eta pentsatu genuen aukera ikaragarria zegoela hori hona ekartzeko, Artaxoan lidergoaren behatoki bat antolatzeko, hirietako jendearen iritzia eta landa-herrietako jendearen iritzia eratzeko. Eta 2018az geroztik, behatoki hau eraiki genuen, *El líder Imperfecto* izenekoa, eta urtero jardunaldiak egiten ditugu. Jardunaldi tematikoak dira. Aurten ziurgabetasunaz eta autosabotajeaz hitz egingen dugu. Ez dira PowerPointen oinarritutako ponentziak, baizik eta gaia denon artean eztabaidatzen dugu. *El líder Imperfecto*ren barnean lerro oso argi bat dago. Nire lan guztiaren zeharkako ardatza generoa izan da. Hil honen bukaeran, emakume mordo handi bat hartuko dut etxean, topaketak egiten baititugu gure proiektuak eta gure negozioak baloratzeko, eta alderantzizko mentoretza egiten dugu.

Beste plataforma bat ere atera genuen, *Artajona Rocks* izenekoa. Oso jolas dibertigarria iruditzen zaigu; *rocks* da mugitzen dena, da hemen harriak daudela, eta plataforma horren bidez, Artaxoan dagoen talentu izugarria ikusarazi nahi dugu. Sinestezina da, maila guztietan. Eta dauzkagun azken proiektuak... noski, haurrak nituenean hurrei buruzko proiektuak nituen, nerabeak nituenean nerabeei buruzkoak; *baby boomerrak* egin nituen, eta orain amona naizenez, zerk kezkatzen nau? Zilarrezko ekonomiak, *silver generationek* Orduan, *The Silver Bunch* izeneko ekimen bat dugu, burutxo zurien taldea da, nolabait esatearren, eta elkarrizketak eta analisiak egiten

ari gara, landa eremuko emakumeak eta hiriko emakumeak, nola ari diren bizitzen beren bizitzako aro hori. Zure bizitzako aro honetan erabaki behar duzu: edo Jainkoaren itxarongelan geratu edo bete-betean bizi, egiazki alde egiten duzun arte.

Eta, gero dago, "*Qué quieren las mujeres*" (Zer nahi dute emakumeek?) izeneko beste proiektu hau. Oso pozik nago, Imersoko proiektuen deialdi batera aurkeztu bainintzen. Nik ez nuen nahi, imajina dezakezue batek Imersori aurre egiten diola ahal duen guztian, eta ez noa bidaian, baina uste dut joanen naizela, ez baitago gaizki. Orduan proiektu hori aurkeztu nuen: ideia da, lehenik, emakumeoi ez digute galdetzen zer nahi dugun, esan egiten digute zer nahi dugun. Nik, 72 urte ditudanak, beti pentsatzen dut: ez diot utzi gizon bati niri esaten zer egin behar dudan edo zer nahi dudana; izan ere, gustatuko litzaidake plataforma bat egotea, non emakumeek – bereizi gabe profesionalak edo enpresariak edo etxekoandreak diren, edo ikasketak dituzten edo ez dituzten– espazio bat, *marketplace* bat, eduki ahal izan dezaten, egiten dakitena erakusteko, beren produktuak edo zerbitzuak saltzeko eta, aldi berean, ekitaldiak antolatzeko. Orduan, "*Qué quieren las mujeres*" izeneko plataforma horretan ari naiz lanean. Errealista naiz, denbora mugatua dut, baina Iruñeko "*Mujeres en camino*" izeneko sare baten mentorea naiz, emakume batzuk horretan inplikatu ditut, eta aurrera jo nahi dugu. Eta ideia da, baita ere, emakumeok beti oso lotsatiak garela gure gauzak azaltzeko, eta are gehiago adin jakin batean, eta are gehiago landa-ingurunean, nik uste. Baina nik ez dut itxaropena galtzen "*Qué quieren las mujeres*" plataforma laster errealitatea izan dadin.

MODERATZAILEA:

Artaxoa zenbat eta gehiago ezagutu, periferiako gero eta hiriburuago bihurtzen da. Artaxoak, ikusten duzuen bezala, zerko bat du, eta mintegi bat ere bai. Gauzak gertatzen ari dira. Mariak partzuergoaren 30 urteak aipatu ditu, KUNAK dituen 30 urteak. Bada-kizue KUNAn udalerrietako kultur teknikariak bilduta daudela, administrazioaren esparrukoak. Urteak joan-urteak etorri, hazten joan gara, begirada zabaltzen, arreta beti jarrita gai batzuetan. Eta uste dut Marisak orain proiektu horiek azaltzean ireki digun aukera dela ekintzaileak kudeaketa erakartzen duela, eta kultur kudeaketak ere begiradak zabaltzeko behar dituela. Nik esanen nizueke, mesedez, hartu kontuan kultur kudeatzaileak proiektuak garatzeko, eta doazela sinetsita horrek ere elur-bola efektua egiten duela. Zorionak egiten dituzuen proiektuengatik eta Artaxoan etengabe erakusten duzuen jarreragatik, akatsik gabea baita.

Marisak aipatu du hemen lurraldean egiten duen lana. Bideoa ikusi dugu, Adolfo, eta nik jakin-mina daukat jakiteko nola diagnostikatzen dituen Corralizas elkarteak herriak izan ditzakeen beharrak eta nola erantzuten dien beharrei. Intuizioa ote den, Marisak esaten zuena ote den, hots, asko hitz egitea eta denon artean erabakiak hartzea, baina, noski, udalerrian horrelako espazio bat behar dela ondorioztatzen baldin baduzue, nola iristen zarete horrelako ondorioetara? Zer diagnostiko egiten dituzue? Nahi baduzue, orain hitz egiguzue pittin bat batzordearen funtzionamenduari eta erabakiak hartzeari buruz.

ADOLFO VÉLEZ

Corralizas elkarteak irabazi-asmorik gabe eta herriaren onerako sortu zen. Orduan, zerbitzu guztien bidez egiten du: ekonomikoa, soziala eta kulturala. Ekonomikoak argiteria publikoa ekarri zuen, irin-fabrika sortu zuen, urak ekarri, hiltegia eraikitzeko lurra laga, oinetakoen fabrika eraikitzeko lurra laga, Txantreako etxeak eraikitzeko lurra laga zuen, eta nekazaritza-esperientziatarako finkak doan ere laga zituen. Hori ekonomiari dagokionez. Corralizas elkarteak ez du hori guztia kudeatzen. Herriaren zerbitzura jartzen du, eta gero eramateaz arduratzen dutenek kudeatzen dute. Hala ere, badira beste zerbitzu batzuk. 1931n sute-zerbitzu bat sortu zuen material guztiaz hornitua, haurrendako jantokia sortu eta diruz lagundu zuen, diruz lagundu zuen arrantxoa gerraondoan, X izpien tresna bat erosi zuen ospitalerako... Horrelako gabeziak edo beharrak sortzen dira, eta Corralizasek bete egin ditzake. Urtero ekarpe-

nak egiten dizkie guraso elkartei, musika eskolei, erregeen kabalgatari, 1948ko futbol zelaia... Egoitza, patronatua eta ospitale santua laguntzen ditu diruz.

Eta kultur arloan, haurrendako lehen eskolak eraiki zituen Artaxoan. Haurrendako beka bat sortu apaiztegian sartzeko. Ondoren egin ziren eskoletan diruz lagungarria ez den zatia ordaintzen du. *Colegio del Ángel* ikastetxeko konponketak laguntzen ditu diruz, eta ekarpenak egiten ditu *Colegio del Ángel* ikastetxeko materialerako. Artaxoan egondako lehen eskola-liburutegia lagundu zuen diruz; 63tik 74ra Tafallan ikasten ari ziren ikasleei ere laguntzak eman zizkien, hara joan ahal izateko; ondoren, haur klubari dirulaguntza eman zion, bai eta dantza taldeari ere, jantziak, etab. Musika banda lagundu du diruz, diru-sarrera bat emateaz gain; haiek enkargatutako partitura erosi du, eta Corralizas elkartearen jabetzakoa da. Eta azken ahalegina *Reino de Artajona* da, guneko eszenikoa, alegia. Baina Corralizas elkarteak ez du kultura kudeatzen. behar diren bitartekoak ematen ditu kultura egon ahal izateko eta aurrera jo dezan. Eta hau Udaleria laga dio, bere osoan kudeatu dezan. Horra Corralizasek duen eginkizuna.

MODERATZAILEA

Ni asturiarra naiz, eta atsegin dut topaketa hauetara urtero etortzea, txikitasunaren balioa deskubritzen dugulako. Gogoan daukat duela urte batzuk Ribaforadan egon ginenean nola jakin genuen Nafarroako mugetan ere gauza zoragarriak egiten zirela. Eta batzuetan, Isabelek arestian esan duen bezala, kapitalaren metatze horrek, eta komunikazioaren eta ikusgarritasunaren metatze horrek, batzuetan eragozten du ikustea hemen Artaxoan, Erdi Aldean, egiten dituzuenak bezalako ekintzak; eta uste dut sekulako balioa duela. Bestalde, ez dago hemen egiten dena zertan alde guztietan ezaguturik, erabat funtsezkoa baita hemen egitea eta hemen ezagutzea, hemen bizi den jendeak ezagutzea. eskerrik asko ere zure azalpenagatik, Adolfo.

ADOLFO VÉLEZ

Esa es la visión que tuvieron los primeros que crearon la sociedad de Corralizas. Porque cuando la desamortización, dijeron: en vez de que caigan en manos extrañas, nos las quedamos y se beneficia el pueblo de Artajona. En vez de quedársela los cinco que la compraron, lo hicieron para todo el pueblo. Ahí yo creo que no está reconocido lo que nos dieron para después.



MODERATZAILEA

Zoragarri. Orain, María, pittin bat gehiago sakondu nahi baduzu orain garatzen ari zareten proiekturen batean.

MARÍA AMATRIAIN

Nik bi proiektu azaldu nahi dizkizuet. Horietako bat Partzuergoan sortu eta hazi da aldi berean, eta bestea oraintxe lantzen ari gara. Eta grazia handia egin dit *Erdialdeko Lur* horrek, iduri baitu hobbitekin gaudela. Barkatu, badakizu zer? Bat hona etortzen denean, beti espero du hobbitak aurkitzea, Erdialdeko Lurrean dagoelako.

MODERATZAILEA

Barkatu jende guztiari.

MARÍA AMATRIAIN

Grazia handia egiten digu. Hau begi-keinu bat da, hemen bertan Nafarroako Erdialdeko marka turistikoa aurkeztu genuelako; inoiz ere ez genuen pentsatu halakorik behar genuenik. Eta Erdialdea deitetik Nafarroako Erdialdea deitzera pasatu gara. Nire lankideak, oso txikia baita, esaten zuen jende askok bera oso txikia ikustean,



esaten diola: orduan, zu hobbitetako bat zara. “Tira txikia naiz, baina ez zaitezte pasatu”.

Argazki hau jarri dut, Artaxoako argazki bat delako, igoeran. Hau da Artaxoan laiekin egiten duten lasterketa, gauza paregabea da, hemen eta Garesen baizik ez da egiten. Eta laiaren lanak, uste dut badakizuela nola funtzionatzen duen: laiak ez du bere kabuz funtzionatzen, laia koadrilan erabili behar da, elkarlanean. Elkarlana behar duzu, laguntza sare bat, huraxe erabili ahal izateko. Horregatik, argazkia.

Eta Nafarroako Erdialdean, erdialdean, Nafarroako bihotzean, egiten ari garen bi proiektu kontatu nahi dizkizuet. Lehen esan dizuedan bezala, Partzuergoak urte hauetan guztietan zehar, garapen proiektu asko jarri ditu abian, lurralde kohesioan begirada jarrita, erakunde ezberdinen arteko lankidetzan, eta beti gizartearen inplikazioa xede harturik. Horri esker, eskualdeko kultur aniztasuna eta tradizioak gordetzen eta sustatzen lan egin ahal izan dugu. Adierazgarrienetako batek 28 urtetik gorako sustaia du, eta gure ingurua bereizten duten elementuetan dago oinarritua: Erdialdeko Turismo eta Kultur Jardueren Sarea deitzen duguna da. Lagun artean, Jardueren Sarea. Orduan, erdialdea, ezagutzen ez duzenontzat, ondarea baita, Artaxoa ondarea den bezala, zerua da, beti deigarria egiten zaigulako Nafarroako zero politenak ditugula, paisaia oso bereziak ditugu, deigarriak oso, tradizioak dira, herriak dira, baina jende atsegina eta abegikorra ere bada. Eta horiekin guztiekin, eta haien konterbazioa bultzatzeko, Partzuergoak ulertu zuen turismoa palanka bat zela

-gozamenerako dimentsio ekonomikoenean- beharrezkoa helburu hori lortzeko.

Baina pentsatzen dugu turismoak planifikatua eta koherentea izan behar zuela, eta jasangarritasunean oinarritua egon behar zuela, hori funtsezkoa baita. Eta hori esaten dugunean ez dugu esaten orain modan dagoelako jasangarritasuna, baizik eta hasieratik landu dugun elementu gakoa lurralde honen berezitasuna babestea izan delako; gainera, lurraldea bereziki sentikorra da klima-aldaketaren ondorioekiko; uneoro esaten digute hori duela gutxi pairatu ditugun suteak eta uholdeak. Gainera, guretzat ere funtsezkoa zen enpresa-sarea bultzatzea, horiek baitira horren guztiaren protagonista behar-beharrezkoak, eta, halaber, hemen bizi diren pertsonak kontuan hartuta. Orduan, Jarduera Sareak filosofia hori du, eta udalerri bakoitzaren eta eskualde osoaren identitate-elementuen balioa nabarmentzetik abiatuta, hala nola historia, tradizioak eta ardoaren kultura, izaera ludiko eta kulturaleko ekitaldi multzo bat sortu genuen, gure lurraldea sustatzeko eta Nafarroako dinamika turistikoan sartzeko.

Orduan, hori egiten dugu Partzuergoak, tokiko erakundeek eta udalerri bakoitzean parte hartzen duten enpresa eta elkarteek elkarrekin lan eginez. 2024an, adibidez, 15 jarduera egin ziren, otsailetik urrira arte. Egutegi nahiko garrantzitsua sortzen da urte osoan zehar, eta, gainera, turismo fluxu hori urtaroen gaineratik kokatzen laguntzen digu. Ikusten duzue, gure Jarduera Sarearen irudia kiribil bat da, kiribilak mahatsondoaren landare-elementu horiek baitira, eta horien eraginez, mahatsondoak korapilatzen joaten dira; nolabait, adierazi nahi genuen kiribil horrek ekitaldiz ekitaldi, udalerriz udalerri lotzen gaituela. Artaxoak horietako bat egiten du, Artaxoako Historiarekiko Topaketak dira, hain zuzen ere. Aurten 24. edizioa egingen dugu, eta *Eskualdeko Turismo Intereseko Jaia* da. Hona hemen ekitaldi horren irudietako batzuk.

Jarduera Sareak hainbat arrakasta izan ditu; adibidez, ondareari balioa emateaz gain, ondareari irisgarritasuna emateko gaitasuna. Hau da, bisita gidatu horiek, paseo gidatu, antzeztu horiek, monumentuak irekitzea, leku txikiak eta aztarnategiak deskubritzea... bestela, halakoak ezin izanen lirateke bisitatu. Sarbidea ematen zaie. Zergatik? Kudeaketarik ez dutelako, eta urte osoan itxita daude, eta data horietan izan dezakegu sarbidea eta jendeak ezagutu ditzake. Eta ezagutzaren bidez kontserbazioa lantzen da. Gero, Sareak tokiko artisau-produktua babesten du merkatur



bidez. Merkatuak ekitaldi horietako elementu garrantzitsuenetako bat dira; artisautza-merkatuak dira, artisautza saltzeko, sustatzeko eta ezagutzeko gune moduko batzuk sortu nahi dituztelako, batez ere tokian tokikoa. Eta horretarako, araudi bat sortu genuen. Araudiak parte hartzea abalatu eta artisau-produktua arautzen du. Sareak, halaber, tokiko herritarren parte-hartzea du xede. Ikusten ari garen irudiotan, merkatuaz gain, parte hartzen ari den jende hori guztia Artaxoako jendea da, nolabait ondarea kontserbatzeko proiektu honetan parte hartzen duena; xedea baita jende hori sentibilizatzea, ondarearen kontserbazioan duten erantzukizunaz ohartzea, harrotasun hori haiengan sortzea, horrek ere tokiko nortasuna finkatzen laguntzen duelako eta ekitaldiari berari aberastasun eta bereizgarritasun handiagoa eman diolako.

Eta lehen esan dizuedan bezala, jasangarritasuna eta irisgarritasuna funtsezkoak dira Jardueren Sarean, ekitaldi horiek eraginkorrakoak izan daitezen eta pertsonen etorrerak duen eragin kaltegarri hori murrizten saiatzeko. Horregatik, Jardueren Sarea Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak duen proiektu batean dago sarturik. *Turismo Bikaina*, *Turismo de 10* du izena. Azken batean, dinamizazio-jardunaldi horiek udalerrien eta sektoreen sustapen onuragarria lortzen dute: turismoa, merkataritza eta kultura. Eta, gainera, baliabideen kontserbazioa bultzatzen dute, eskaintza erakargarria sortzen dute bisitatzen gaituztenentzat eta, tokiko nortasuna finkatzean, funtzio sozial bat betetzen dute, harrotasuna sortzen dute bertako gauzez, sareko lana eta herritarren parte-hartzea.



Bestalde, oraintxe bertan esku artean darabilgun proiektu bat aipatu nahi dizuet, abian jartzen ari garena, pleguak bete-betean ditugulako. Ilusio handiko erronka da, baina, aldi berean da Partzuergoaren eta hainbat Udalen arteko eskaeratik sortutako erronka. Erdialdea jomuga duen turismo jasangarritasuneko plan batean dago sarturik, eta Next Generation Europako Suspertze Funtsaren bidez finantzatzen da. Jasangarritasun plana aukera handia da gure inguruarentzat, bultzada handia ematen diolako lurraldeak bere estrategia turistikoa definitzeko borondateari; eta gainera, oso modu parte hartzailean egin genuelako: izan ere, 150 pertsonak baino gehiagok erabaki zuten nola definitu nahi genuen gure eskualdea turistikoki etorkizunari begira. Bide-orri bat trazatu genuen, oinarri harturik jasangarritasuna, berrikuntza, digitalizazioa, betiere gure inguruko eskaintza eskarira egokituta. Eta eskaera horrek inposatzen dizkigun joera berrietara egokituta, non kultur ondarea guztiaren oinarria den, gure inguruan halaxe baita; hau da, kultur ondareak definitu behar du dena eta izan behar du ardatza.

4.740.000 euroko finantzazioa dugu hamahiru jarduera-ildotarako. Plan hau aurrera eramatea erronka bat izaten ari da, oso denbora laburrean egin behar dugulako. Behin dirua dugun honetan, presaka eta gozatu gabe gastatu behar dugu, baina gutxienez pentsatuko dugu horrek guztiak eragina izanen duela. Ekintza-ildo horietako bat ondarearen balioa nabarmentzeko pentsatua dago. Oraintxe bertan, ilusio handiko

proiektu bat dugu, eta Nafarroako Erdialdeko ondarearen interpretazioa eta haren balioa nabarmentzea ditu xede, digitalizazioaren eta berrikuntzaren aukerak aprobetxatuz, batzuetan ondaretik urrun baitaude. Ondarea hemendik doa eta haiek beste alde batetik. Baina aprobetxatuko ditugu, tresna horietan oinarrituko gara eta hainbat gauza hobetuko ditugu, hala nola jomugaren posizionamendua, ondarearen ezagutza, irisgarritasuna, aitortza publikoa eta, batez ere, bisitaren esperientzia aberastea. Erronka da.

Dakizuenez, hau kudeatzen baituzue, ondarearen interpretazioak lotura intelektual eta emozionalak sortu nahi ditu lurralde bateko pertsonen eta baliabideen artean, eta pertsona horiek baliabideei buruz beren esanahiak sortzea lortzen da, estimatu ditzaten, gozatu ditzaten eta, ondorioz, babestu ditzaten. Horixe da proiektuaren funtsezko printzipioa. Oso proiektu zabala da, eta halaber, badu dinamizazioarekin, sustapenarekin, komunikazioarekin eta seinalizatzenarekin zerikusia duen dimentsioa; izan ere, jarduketak egin arren, komunikatzen ez baditugu, ez dira zabaltzen. Ondare arloko elementu desagertu edo osatugabeen berreraikuntzetan eta birsorkuntza birtualetan oinarrituko da. Adibidez, Zerkoaren multzo historikoan esku hartuko da, mugarrien hiru dimentsioko ereduak sortuko dira, elementu horiek lehenago zer forma zuten fidel irudikatzeko, bai eta orain nola ikusiko genituzkeen ere. Hori egiten da Zerkoko uharkarekin eta ziegekin, baina baita Garesko Donejakue elizako atariarekin ere. 360 graduko argazkiak sortuko dira, egungo arrastoak eta lehenago nolakoak ziren gainjartzen saiatzeko. Gogoan duzue zer gertatzen den liburu horiekin, plastiko horrekin? Hori, baina modu digitalean. Oso jarduera garrantzitsuak dira gure ondare-rako, baita bisitatzen gaituen jendeari irakurgarritasun hori emateko ere. Urte bukaerari, Erdialdeko kultur ondarea ezagutzea ahalbidetuko duten emaitzak ikusten saiatuko gara.

MODERATZAILEA

Erdialdea, gorde dut.

María Amatriain

Barkatu, aurrerantzean Nafarroako Erdialdea gara. Izugarri kostatzen ari zait izen hori buruan atxikitzea.

MODERATZAILEA

Lotura-sortzaileen kontzeptua atxikiko dut. Nik uste dut lotura sortzen duzuela. Egiten duzuen lanaren xedeetako bat lotura sortzea da. Isabelen hitzaldiari erreparatuz, agian lotura hori kultur sektorearen esparruan finkatuagoa zegoen, eskaintza gisa eta sartzen den publiko gisa ulertuta, zuen kasuan zabaldu egin duzue, eta herritarrek eta pertsonen kultur bizitzarako sarbidean lotura bat sortzeaz ere hitz egin duzue; alderdi pixka bat desberdinak baitira kultur sistemaren barnean. Loturak sortzen dituzuelako sentsazio orokor horrekin geratzen naiz, eta berriz ere Nafarroan potentzialtasunak identifikatzeko dugun gaitasun horrekin. Nafarroako Erdialdearen kasuan oso argi dago ondarearekin zerikusia duela eta afektibitatearekin ere zerikusia duela. Hau da, Isabelek lehen aipatutako espazioen esanahia aldatzea. Badakizue, halaber, gobernuetako erakunde, instituzio eta organismo askoren zuzendaritza mailan (azkena Gipuzkoako Foru Aldundia), gero eta gehiago bereizten dituztela kultur ekintzarako zuzendaritza nagusia eta ondarrerako zuzendaritza nagusia, ulertzen dutelako ondarearen kudeaketak berez izan beharko lukeela arreta berezi bat, beste helburu eta ikuspegi batzuekin partekatu gabe. Nik kultur bizitzaren ikuspegitik loturak sortzeko ideia hori atxikiko dut, baita iraganean atzera begiratzeko bokazioarekin ere, baina baita etorkizuneko proiektzioa kontuan harturik ere. Nire latinezko irakasleak, Bayales jaunak, beti esaten zuen: “aizu, baina zuk ez dakizu nondik datorren...?” Baina beti zuen ez atzera begiratzeko bokazioa, aurrera begiratzekoa baizik. Eta orain arrazoia eman didazue, horretan jarraitzen baituzue. Beraz, zoragarri.

Aizue, eskerrak hirurei egiten duzuenaren argazkia ekartzeagatik, baina hitz egin dezagun garatzen dituzuen proiektuen egunerokoan dituzuen zailtasunez, bakoitzak bere arloan dituen zailtasunez. Zeintzuk dira izan dituzuen edo oraindik ere badituzuen oztopo nagusiak? Edo, hori ezabatuko balitz, eskusa eroriko balitz, askoz hobeki lan egin genezake, askoz gehiago. Gaur goizean Rebecak esan duen bezala, askoz luzeagoa. Ez dakit zer zailtasun dituzuen egunerokoan zuen proiektuak gauzatzeko.

MARISA ITURBIDE

Uste dut ditugun zailtasunak ia leku guztietan dauden zailtasunak direla. Uste dut denok ditugula ekimenak eta, oso ongi dago, baina aldi berean dena zatikatzen ari gara. Hau da, unitate txikiak egiten ari gara eta elkarrekin lan egitea eragozten di-

gute. Eta nik uste dut hori askotan gertatzen dela kontzeptuek esan nahi dutenarekin ados jarri ez garelako. Gaur goizean pentsatzen ari nintzen: zer da kultura? Uste nuen niretzat ezagutza eta esperientzia sentsorial eta emozionaletarako sarbidea izatea dela, neure erabakiak hartzeko aukera emanen didatenak eta libreago bihurtuko nautenak. Baina, noski, agian kulturaz hitz egiten duzu eta ez zara egiten ari kulturaren kategorian sartzen den zerbait, literatura izan daiteke, artea izan daiteke, ondarea izan daiteke, monumentuak. Ezagutza edo esperientziak lantzen ari zara. Eta egia da baita ere herritarra zarenean eta ekimenak dituzunean, oso zaila dela erakundearen sinesgarritasuna lortzea. Oso zaila. Esaten dute, hau abian dagoenean, deitu. Bai, zu argazkian ateratzeko, ezta? Eta nik ikusten dut ekintzailatzaz asko hitz egiten dela, baina kultur ekintzailatza mota bat egiten ari zarenean, zentzu zabalean ulertuta, ez zaituzte hartzen. Nik ez dut esan nahi eduki ditzakezun proiektu guztiak irentsi behar direnik, nik uste dut gure kasuan dena oso zeharkakoa dela, baina nik uste dut zailtasun bat daukagula kultura ekintzailatza dela ulertzeko. Zailtasun handia. Nik hor bai dei bat eginen nuke gutxienez esertzeko eta horretaz hitz egiteko.

MODERATZAILEA

Glosario bat idatziko dugu, ezta? XXI. mendekoa. Tira, kultura XX. mendean kontzeptu gisa baztertu zen, XX. mendeko identitate-talka saihesteko, eragin zuen guztia eragin baitzuen eta kulturatik eratorritako alderdiez hitz egiten baitzen. Oso interesgarria esan duzun hori

Nik ez dakit, María, zuek eguneroko bizitzan oztopo handiak ote dituzuen, zailtasunak...

MARÍA AMATRIAIN

Jakina, nik denok bezala esaten dut, Marisak esan didana. Denok ditugu oztopoak eta zailtasunak. Oraintxe bertan, esan dizudan bezala, jasangarritasun plan hori kudeatzeko parada dugu, eta aukera handia da eskualdearentzat eta erakundearentzat; gainera, lurraldeak berak erabaki zuen nolako plana egitea. Ez ginen bi edo hiru alkate eta ni neu eseri. Ez, herritarrek eseri ginen eta etorkizunean nolakoak izan nahi genuen erabaki genuen. Erabaki genuen ondarea zela inguru honen garapeneren funtsezko zutabea turismoaren ikuspegitik. Baina, orain, dirua daukagunean, azkar gastatu behar dugu, eta diru eta ahalegin horrek guztiak eragina izatea nahi

dugu; denboran zehar ere jasangarritasun hori izatea. Gero kudeaketa horren erronka topatuko dugulako epe labur edo ertainean. Eta traba burokratiko horiez guztiez gain, beti topatuko dugu beste konplikazio hori, hots, zer egin herritarrak gehiago inplikatzeko, eta guretzat hori da erronketako bat. Zeren batzuetan lotura hori jaso eta biltzen dugu, eta martxan jartzen dugu, eta gero ez dugu itzulketarik aurkitzen.

Erronka asko ditugu, zailtasun asko ditugu. Beste batzuetan, esan dudan bezala, gertatzen da kulturaren ekitera goazela, eta guretzat kulturaren ekitea beti kontu turistiko da, palanka hori delako, eta, azkenean, hemendik ematen zaion dimentsio ekonomikoa delako. Eta ikusten dugu ondare hori itxita dagoela eta irisgarritasuna eta sarbidea zaila dela. Eta inguru honetara datozenek horixe ezagutu nahi dute, baina ezin dugu itzulketarik eman. Hau guztia ez da erraza, jakina. Erraza balitz...

MODERATZAILEA

Ez, ez da erraza. Gogoan daukat Huescako kultur teknikari bat, Luis Lles. Duela urte batzuk erretiratu zen. Eta ipuin kontalari batentzat hiru aurrekontu eskatu behar zituela eta, esaten zidan: burokraziak kontsumitu egiten nau eta gogoia kentzen didate denerako. Urtebete falta da erretiroa hartzeko eta banoa.



Sareak eta aliantzak, kultur garapenaren bultzada lurraldean

Ricard Espelt Rodrigo

Ikertzailea, irakaslea UOC unibertsitatean (Universitat Oberta de Catalunya), eta kultur aktibista, XarxaProd erakundeko kidea (Kataluniako sorkuntza eta ekoizpen guneak).



Sare lana, elkarlan publiko-pribatua, horrek guztiak lurraldean zer-nola eragiten duen. Bada, gai horri jarraikiz eta, era berean, beste komunitate batzuetan nola lan egiten den jakite aldera, Ricard Espelt Rodrigo gonbidatu dugu; ikerlaria, irakaslea eta kultur ekintzailea baita. Eskerrak eman nahi dizkiogu zinez gure gonbidapena onartu izanagatik eta gaur gurekin egoteagatik. Ricard lizentziaduna da Arte Ederretan eta, doktorea, Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean. Irakasle gehitua da Ekonomia eta Enpresa ikasketetan, eta ikerlaria, UOCeko Hiri Eraldakuntza eta Aldaketa Globalerako Laborategian. Halaber, inLoft Kultura eta Ikerkuntza Garaikideko Zentroaren bultzatzailea da beste batzuekin batera, Copons udalerrian, eta Kataluniako Ekoizpen eta Sorkuntza Guneen Sareko kidea da.


RICARD ESPELT

Lehenik eta behin, mila esker antolatzaileei gonbidapenagatik. Egia esateko, plazera da beti gaur egun hainbat kapelarekin egiten ari naizen gauzak azaltzea. Halaber, aurreko solasaldia ere eskertu nahi dut, Isabelen hitzaldia, bai eta mahai ingurua ere, nahikoa inspiratzailea izan baita, nik uste; edukiak atera ahala, neure baitan pentsatu dut: begira hori solasaldian aipatuko dut. Nik hitzaldia eman baino gehiago, halako solasaldi bat egitea proposatu nien. Hasteko, egiten ari naizen hainbat gauza azal-

duko ditut eta, gero, bukatzeko, galdera sorta bat ekarri dut, eztabaida piztuko dutelakoan.

Lehenik, neure burua kokatu nahi dut, uste baitut pribilegio-egoera aitortu egin behar dela, inor zerbait aurkeztera doanean eta, nire kasuan, egoera pribilegiatua da. Nire ibilbidea oso sinesgarria ez bada ere, azkenean unibertsitate bateko Ekonomia eta Enpresa ikasketetako irakaslea naiz, eta hori egoera pribilegiatua da, eta posizio horrek berak aukera ematen dizu hitz egiteko unibertsitatean lortzea asko kostatzen den posizioa duen norbaiten ikuspegitik; eta halaber, posizio analitikoenetik hitz egiteko aukera ematen dizu, eta hori ere ulertu daitekeela uste dut. Baina, hasteko, hortik urrunduko naiz, hau da, nire jarrera ekintzaileaz hitz egiten dut; azalduko dizuet zer egiten den 340 biztanleko udalerri bateko zentro batean kultura garaikidea sortzeko, eta horrek dakartzan erronka guztiak. Espektatiba batzuk ere sortu nahi ditut, eta uste dut orain kontatu dituzuen gauza batzuen osagarri direla, eta uste dut horrek oso esperientzia zehatzak trukatzeko eztabaida ere eragin dezakeela.

Gero, kapela aldatuko dut, XarxaProd sarearen kapela jantziko baitut, Kataluniako sorkuntza eta ekoizpen zentroen egituraketa gune bat da; beraz, zentro sare batek izan dezakeen potentziala ere identifikatzen da, eta hor uste dut elkarrikeria interesgarri bat ere izan daitekeela gerorako. Duela pare bat urte, Cuencan, sare talde batekin hitz egiteko aukera izan nuen, bai Galiziakoa, bai Nafarroakoa (Landarte), eta hor hasi ziren sortzen jarraipenik izan ez duten elkarrikeria batzuk, baina agian Lizarrako topaketan [VIII. Kultura eta Landatasunak Foroa] izan ditzaketenak, XarxaProd sarearen bidez ere egon garelako. Beraz, uste dut sareak, ezagutza eta elkar ezagutzea sustatzeko ideia hori ere ongi egon daitekeela. Izan ere, pasadizo bat kontatu nahi dut. Gaur aurkezpenean, kafearen tartean, Isabelen hitzaldiaren ondoren, hizketan aritu gara, eta hara! berak ezagutzen du edo lanean ari da aldameneko bulegoan dudak irakaslearekin. Eta agian hemen lotura-aukera batzuk bururatuko zaizkigu. Hau da, topaketa hauek ere badute balioa, eta era berean, gaur topatzeak duen balioa berretsiko da, bai eta partekatu eta entzun ahal izateak duen balioa ere.



Eta, azkenik, agenda akademikoenari helduko diot. Nire ikerketaren osagaia ez da oso teorikoa, edo ez soilik teorikoa, oso enpirikoa baizik. Hau da, ikerketa-ekintza lantzen dut, eta uste dut horrek ateak irekitzen ahal dizkiola akademiak kultur kudeaketaren mundu honetan izan dezakeen zereginari. Aurkeztuko dudan guztia talde-lana da.

Copons izeneko herri txiki batetik nator, Kataluniako erdialdean dago, 340 biztanle ditu, eta horrek oso komunitate interesgarria sortzen du. Bere erronkak ere baditu: biztanleria zahartua. Kasu honetan, hori aldatzen ari da; joera ez da bakarrik Coponsen gertatzen ari, Espainiako udalerri askotan baizik, hots, jendea udalerrira iristen ari da ideia berriak dakartzala, baita aukera berriak ere, eta landa udalerri batean bizitzea zer den irudikatzen duen iruditeria berriak ere bai. Nire herriaren marrazkitxo hori egin dut, halaber, kokatu nahi dudalako kultur kudeaketa bat edo zeharkako kulturarekiko harreman bat sortzeko behar hori, kulturak izan dezakeen ahalmen osoaren ikuspegitik (uste dut eztabaida-mahaiak dagoeneko hori ere egin duela). Halaber, kultura hori elementu eraldatzaileria da ekonomiaren, gizartearen, generoaren, inklusioren... ikuspegitik. Kultur dimentsioa, izan ere, ondarea eta alderdi horiek izanen liratekeenetatik haratago doa, eta gizartea eraldatzeko dimentsio hori ere badu. Eta, era berean, kultura kokatu bat sortzeko beharra, eta kultura kokatuaren ikuspegi hori izatea ahalbidetzen duen aukera. Globalizazio ingurune batean bizi baikara, non adimen artifizialak bultzatzen baikaitu homogeneizazio horrek dituen estandar algoritmoekin eraikitzen. Eta kulturaren ikuspegia lurralde oso zehatz batean birpentsatzeak berezitasunak ere ekan ditzake, eta pista batzuk emanen dizkizuet. Zuek ere



esperimentatu dituzuen alderdi batzuk azalduko ditut.

Coponsen egiten ditugun proiektu asko aurkezten ahal dizkizuet, baina lehenik eta behin udalerriko oinarritzko bi azpiegituri buruz hitz egin nahi dut. Batetik, eskola. Nire ustez, 340 biztanleko udalerri batean kulturaz hitz egiten hasi aurretik, oso egokia da, halaber, azpiegitura batek izan dezakeen eginkizunaz hitz egitea. Proiektu hori duela bospasei urte hasi zen, herriko errektoretza udal eskola bihurtzeko asmoz, eta niri metafora polita iruditzen zait. Eta hemen duzue eraikina bisualki nola eraldatu den, baina era berean nola aldatu den herria. Eskolan 15 haur izatetik 72 izatera pasa gara. Hori oso garrantzitsua da 340 biztanleko udalerri batentzat; izan ere, hezkuntza proiektua dela eta, kanpoko jendea erakartzen du, oso ikuspegi interesgarria dutenak; gainera, kultura herrian iruditeria gisa izan daitekeenaren ikuspegitik, oso balio garrantzitsua ekartzen ari dira. Oinarritzko beste azpiegitura bat okindegia da. Sei edo zazpi urte generamatzen okindegirik gabe. Hori drama hutsa izan zen; okindegia, gainera, artisautza okindegia zelako. Bikote gazte bat etorri da herrira bizitzera eta ogia egiteaz arduratzen da. Eta oso oinarritzkoa eman dezake, baina nik uste dut hor aukera pila bat ere sortuko direla kulturaren ikuspegitik. Eta uste dut azpiegitura mota horiek sartu behar ditugula kultura eta kulturaren iruditeria izan daitekeenaren eztabaidan, ikuspegi kokatu batetik.

Lehenengo proiektuari helduko diot. Proiektu asko azaltzen ahal dizkizuet, baina proiektu hau zuei aurkezteak ilusio berezia eragin dit. Nafarroarekin ere sustraiak



dituen proiektu bat da, eta agian ezagutuko duzue haren protagonista. Asier Gogorza da. Berako euskal argazkilaria. Berak proiektu bikaina egin zuen *30 segons, 30 segundo* izenekoa; hots, horixe da argazki bat kamera estenoeko batekin egiteko behar den gutxieneko denbora. Kamera estenoekoarekin lan egiten duen argazkilaria da. Berarekin, aurrez beste proiektu bat egin genuen, 30 segundoak kontzeptualizatzeko; azken buruan, horren bidez, bat-batekotasunera eta iragazkietara ohituta dagoen belaunaldi bati aurre egin nahi izan genion, teknologiarik digitalena den guztia kendu genien; erretratatzeko, etenaldi bat beharrezkoa dela ezarrita, zer gertatzen zen ikusteko. Elementu artistiko bat bezalakoa zen, baina, egia esan, ia alderdi antropologiko edo etnografiko bat bezalakoa ere bazen. Uste dut ariketa interesgarria izan zela, herriko gazteekin egin zelako eta udan egin zelako; gazteak, gainera, oso estimulatu zeuden, udako eskola bat baitzegoen tartean, etab. Beraz, hor sartzen zen artea, modu disruptibo gisa eta, gainera, probokazioa eragin nahian. Oso ikasketa polita izan zela uste dut. Baina liluragarriena iruditzen zait topaketa bat sortu zuela: batetik, teknologia ia zaharkitua izan daitekeenaren ikuspegi oso eraldatzailea duen artista garaikide bat, eta bestetik, oso jende gazteak teknologia erabiltzeko dabilen hizkuntza eta ikuspegi bat, eta topaketa hori oso magikoa izan zen.

Gazteek erretratuak egiten zizkieten beren buruari, eta hori nola-halako erronka zen haiendako, hots, gutxienez 30 segundoz zain egon behar baitzuten irudia hartzeko. Izan ere, haiek argazki-kamerak egin, kamera hortxe jarri, eta 30 segundoz geldigeldi egoten ziren. Pentsa, 14 urteko gazteak, gutxienez 30 segundoz edo bi minutuz

geldi, mugitu gabe; eta gero, hori bukatua zen, eta kutxa bat zegoen zure aurrean, zer emaitza izan zen jakin gabe; beraz, argazkia errebelatzeko prozesua hasi behar zen argazkia ikusteko. Haien zat, liluragarria izan zen, hau da, artikulazio horren guztiaren eginkizuna ikustea, irudiak nola funtzionatzen duen ulertzea, etab, oso polita izan zen. Asierrekin ere beste gauza oso interesgarri bat egin genuen, hots, eskolako eraikina kamera ilun bihurtzea. Hau da, barnealdeak kamera gisa funtzionaraztea, eta leihoetako batean zulo txiki bat egitea, hau da, dena estali eta zulo txiki bat uztea. Eta udalerriko jende guztiari dei egin genion ordu jakin batean etor zedin, herri argazki bat hartzeko. Eta nire ustez, horrek ere azaltzen du pixka bat nola saiatzaren garen proiektuak bideratzen. Hau da, gazteak zabalkundean aritu ziren; *“aizu, argazki bat eginen dugu gaur arratsaldeko 6etan, zatozte denak hona”*, eta herri guztia bildu zen; pentsa, 60 edo 70 lagun eskolaren aurrean, esposizioak dirauen 3 minutuz eta 40 segundoz horrela geldirik, eskola aurrean, eta eskola argazki-kamera bat zen.


Horrenbestez, instrumentu batek, kultur artefaktu batek, enpatizatu dezakeenaren mailan kasik aritu ginen; adibidez, argazki bat egitea, argazki kolektibo bat egitea, erretratu kolektibo bat egitea, herriaren ikurra den eraikin baten aurrean, ba polita izan zen zinez. Eta pentsatzea 70 lagun egon zirela hantxe geldirik, une berean, arretaz eta mugitu gabe, bai ia magikoa izan zen. Hau da, tontakeria iduri dezake baina niri harrigarria iruditzen zait. Eta nire ustez, horrelako esperientziek ere zentzua ematen diote kultura kokatuari, zuen proiektuen bidez azaldu duzuen bezala.

Hau ere Asierren proiektua da eta lotura ere badu ondareari ematen dizkiogun begiradeekin. Kataluniako inguru horretan, Mediterraneoko hainbat tokitan bezala, harri lehorra balioetako bat da ondareari dagokionez eta, zenbaitetan, era ikusezinean dihardu. Dakizuenez, harriz egindako eraikuntzak dira, oso harri hurbilak, behiala garrantzia handia izan zutenak. 100 urte lehenago, udalerraren funtzionamenduaren beraren egitura ekonomiko bat bezalakoa ziren kasik, baita udalerraskorenak ere. Baina, egia esan, gaur egun, ia ez dira erabiltzen eta, gehienez, turismo ibilbide bihurtu dira. Han, halaber, artearen eta kulturaren inguruko iruditeriak planteatu ditugu, azpiegitura horien beste dimentsio bat emateko. Eta duela hiru urte, zortzi artistako talde batekin, ariketa bat egin genuen eta, hartan, Asierrek eta haren lankide Llorellak parte hartu zuten, jokoa emateko edota harria lehorra izanzen zenari begirada berriak ere emateko. Hori, azkenean, poetikoki txertatzen da, desegiten denean, eta, arrazoi hori dela medio, berriz ere paisaian txertatzen da poetikoki eta ia guk jakin gabe. Beraz, ia ez dago minik, edo ez bazenekien hori hantxe zegoela eta



azpiegiturako zer bait zela, balio hori aitortzea garrantzitsua zen.

Egin genituen begiraden artean, Asierrek eta Jordik oso gauza interesgarria proposatu zuten, hots, harri lehorrez egindako barrakak begi bihurtzea. Nik esaten nien haiek Kristok bezala egiten zutela, hots, txabolak plastiko beltzarekin estaltzen zituztela; eta orduan, oharkabean pasatzen zen zer bait, gehienak inguruko harritz eginda zeudelako, gauza ikusgarri bat bihurtzen da, nabe bat han erdian lurreratu izan balitz bezalakoa baita, haiek esaten zuten bezala. Jordik txabola barnean egiten zituen argazkiak kamera estenoipeko batekin, eta Asierrek, berriz, txabolak ikusten zuen paisaiaren argazkiak hartzen zituen. Hau da, txabola subjektu bihurtzen genuen, hots, inguruan zuen paisaia ikusten zuena, eta iruditzen zait harri lehorrezko txabolen inguruan izan dezakegun ikuspegia orientatzeko beste modu bat bezalakoa zela. Askok ere proiektu gehiago kontatzen ahal nizkizuen, baina hemen utziko dut; gero, nahi baduzue, elementuren bat garatuko dugu edo beste proiekturen bat azaldu. Zentroaz dugun ikuspegiarako garrantzitsua da azaltzea proiektuak zer diren eta, horregatik ere, saiatzeko gara dena dokumentatzen, hau da, metodologia, kontakizuna, komunikazio aldea, niri oso garrantzitsua ere iruditzen zaidana, eta elementu diskurtsibo horrek halako izaera holistikoa izatea komunitatearekiko harremanaren inguruan, kulturak lagundu ditzakeen aspektuen inguruan, nola biltzen diren eta nola horrek balioa eragin dezakeen, ikerketa-ekintzaren ikuspegitik, proiektu berriak sortze aldera.




Ikerketa-ekintzaz mintzo naizenean eta akademiak mintzo naizenean, iruditzen zait akademia lagungarria izan daitekeela kultura finantzatzeko, eta ikerlari-irakaslea naizenez gero, pribilegio ikuspegi batetik mintzatzen ari natzaizue, eta nire ustez horrelako ariketetan lagundu dezakegu. Ni ere boomerra naiz, oraingo nire erreferentzialiburuak ekarri dut, Francesco Careriren liburu bat, *Walkscapes* izenburukoa, biziki gomendatzen dizuet. Halako ibilbidea da paisaiak ezagutzeko, elkarreraginak ezagutzeko, kultura ezagutzeko, etab. Eta hortik aurrera, proiektu hau plazaratu dugu. Honenbestez, bukatu dut zer egiten dugun inLoft-en, Coponsen. Proiektu hau bereizgarria da digitalizazioari dagokionez. Isabelekin hitz egin dut pausaldian, eta hemen ere halako zentzu berri bat eman nahi genion aspektu horri, presentzialtasunaren edo elementu fisikoen eta elementu birtualen artean. Hau [txartela eskuan] posta arrunt bidez hedatzen da, hau da, jendeak hau jasotzen du irudiekin. Hau, irekitzen duzunean, liburutxo bat besterik ez da, eta DINA3 batekin eta fotokopiagailu batekin egiten da, hau da, artefaktu hau oso erraza da fabrikatzeko. Eta azaltzen du nola hurbiltzen garen barraka zehatz batera. Barraka horretan, aurten, ariketa edo proiektu esperimental bat eginen dugu, hots, artistak gonbidatuko ditugu mendi erdian dagoen txabola batera sorkuntza egitera joan daitezela, 24-72 orduz. Eta ideia da egonaldi guztia hantxe egin dezatela.

Joan baino lehen, hau jaso dute; gida bezalako bat da txabolarantz joateko. Hor azalpen zehatza dago topatuko duten landarediaz, zer proiektu dauden, etab. Tes-tuinguru bezalako bat emateko. Eta hedatzen dutenean, mapa bat dute, Google Mapsi hackeatuz, topaketaren xehetasun oro azalduta. Eta azkenean, hori guk foto-

kopiatu eta guk egin dezakegun zerbaite besterik ez da; eta jendeak interes handiagoa badu, hemen ere badago QR bat, eta bertan sartu eta horrelako beste proposamen batzuk ikusiko dituzte. Baina ideia hau da, nola egiten dugun bestelako ibilbide bat. Arlo presentzialari ematen diogu balioa, huraxe jasotzeki. Hori jaso duen jendearen lehen adierazpena, duela hilabete baitago abian, emozioa da. Hau da, posta bidezko gutun bat jasotzen duzunean, ez bada faktura bat edo isun bat, bai ia emozioa da. Nire ustez, hor ere badago joko. Eta uste dut horrek ere zentzua ematen ahal diola honakoari, hots, nola begiratu ondare baten inguruan balio bat sortzeko borondatea duen zerbaite, burutazio hutsaz haratago doan horri. Eta uste dut denon artean zentzu handi samarra ematen ahal diogula.


Gaur, XarxaProdeko kide gisa ere banago. Ezagutzen ez duzuenontzat, XarxaProd sarearen duela 15 urte inguru sortu zen, Katalunian kultur sorkuntza eta ekoizpen zentroak antolatzeko. Uste dut oso egokia dela XarxaProd sarearen eraldakuntza pixka bat ikustea, sareak sustatu nahi dituzten topaketek zer balio izan dezaketen ere ulertzeko. XarxaProd lobby gune bat bezala sortu zen. Hau da, zentroak indar bateratu gisa antolatzeko espazio gisa sortu zen, Administrazioak entzun ziezaien, baliabide gehiago lortzeko indar bateratua egiteko, kultura kokatuaren defentsa horri dagokionez garrantzia emateko, etab. Orain, sortzen ari diren zentro berriei laguntzeko gune bihurtu da XarxaProd. Katalunian zentro gehiago daude, eta hori ona da, baita lurralde osoan ere, nik uste. Egia da batzuetan egiturak barreiatuta daudela, baina, aldi berean, haiek asko gizarte zibiletik edo kulturarekiko konpromisoa duten administrazio publikoetatik sortzen direnez, sare egituratuen multzo hori sortzea ahalbidetu dezakete. Eta Xarxak zerbitzuak eskaintzen ditu zentroek laguntza handiagoa izan dezaten, kultur kudeaketa duintzeko elementuak ere egituratuta izateko; horrela, ziurtatuko da artisten zein kudeatzaileen lana duintzeko zereginari erantzuten zaiola, baina baita lankidetzaren gune gisa ere. Eta hori garrantzitsua iruditzen zait, fruituak eman ditu, azken urteetan hazten joan da eta orain sare horren perimetroak zabaltzeko aukera ere eman du. Eta uste dut lotura duela orain kontatuko dizuedanarekin, baina baita arakatzen jarrai dezakegun zerbaitekin ere. Gaurko egunak elkar ezagutzeko aukera ematen digu, hori ezagutzen ez bazenuten, baina gero elkarriketan jarraitu dezakegu.

Azalpen txiki bat egingen dut XarxaProd inguruan, ikerketaren alderdi analitikoagoe-kin. Zentroek zer inplikatu duten arakatze esperientzia txiki bat bezala egiten



hasi naiz; batez ere ikuspegi sozioekonomiko batetik, baina eraldakuntza sozialak edo eragin sozialak berekin dakarrenaren ikuspegi holistiko batetik. Gero, esparrua hobeki azalduko dizuet. Baina XarxaProd sarean landa eremuko zenbat udalerrri dauden galdetzen hasita, konturatzen gara zentro batzuk 340 biztanleko udalerrri batean daudela; horietako bat Copons da; baina bada bat Canferreran, Ferreran, Pirinioetan, 123 biztanle dituen; beste bat Entornsen dago, 44 biztanlerekin. Beraz, azpimarratu nahi dut, sareko ikuspegi batetik, kultura kokatu baten lurralde ordezkariak eta lurralde eragileak ere badutela zentzua. Beraz, landatartasunak eta hiri-espazioak adierazten dutenaren dikotomia apur bat hautsi dezakegu, sorkuntzan diren erdiguneez mintzatzeko, lotura eratorriak izan baitituzkete. Hau da, landa eremu bat espazio ezin hobea izan daiteke komunitatean lan egiteko, kontrol elementu oso espezifikoekin; ondoren, ekoizpen, hedapen edo aurkezpen espazio bat gehiago izan dezake hiri ingurune batean. Horra hor kulturak adierazten duenaren zentraltasun hori.

Sarearen eginkizunei dagokionez, asmoa da sarearen esparru administratiboak haustea ahalbidetuko duten harremanak bateratzen saiatzea. Eta hori edozein lurraldetan gertatzen da. Asier (Beran kokatua) berriro hizpidera ekarrita, berak askotan esaten zidan EAEn edo Frantzia dagoen jendearekin kolaboratzen ari zela, mugalde honetan gaudelako. Izan ere, bere lana muga irudikatzen duen guztiaren lane- tik dator. Uste dut ideia horrekin eta lurralde-kokapenari berari dagozkion sinergiekin sortu dela proiektu hau, REC izeneko proiektua, XarxaProdek sustatzen duena, Euroeskualdeak finantzatutakoa. Eta proiektu horrek loturak sortu nahi ditu Balear Uharteetako zentroekin, eta Okzitaniako zentroekin, Frantzia. Izan ere, egia esan, mugak ia soilik administratiboak dira, baina jada zentro batzuetan lankideak



egin ditugu zentro horiekin, hainbat ikuspegitatik. Beraz, orain dimentsio zabalagoa izanen duen sare hori sustatzen saiatuko gara. Nire ustez, topaketa honen ikuspegiak aliantzak hartzen ditu kontuan, bai eta sareak sortzea ere, elkarren arteko lankidetza espazioak sortzeko, eta uste dut hemendik hilabetera egingen den Lizarrako Kultura eta Landatasunak Topaketako jarduera batzuek ere ikuspegi horixe bera dutela. Beraz, aprobetxa dezagun erakunde batzuek topatzera gonbidatzen gaituztela sare horiek arakatzeko jarraitzeko.

Eta nire ustez, hor ere baliabide ekonomikoak bereganatzeko gaitasuna izan behar da, kasu honetan Euroesualdekoak. Unibertsitateek ere badute kultur kudeaketak batzuetan ezin egin duen gauza bat sustatzeko gaitasuna, hau da, alderdi analitikoago hori edo metodologiak errazteko alde hori, hala nola osagai akademikoa duten hauek [txartela eskuan]. Hemen Ramón y Cajal bekaren doktoretza ondoko proiektu bat dago. Hau da, liburutxo honen atzean badago azaldu ez dudana lan bat. Baina nik uste dut alderdi horiek ere kontuan hartu behar ditugula, hots, sareak sortzeko orduan, baliabide ekonomiko guztiak ere aprobetxa ditzakegu, bai administrazio publikoarenak, bai eta ikerkuntzaren eta ekintzaren ikuspegikoak ere. Eta, hain zuzen ere, Isabelek ikerketa konprometitu horretaz esan dituen hitzak ekarriko ditut hona. Hortaz, XarxaProd-i dagokion atala itxiko dut oraingoz. Gero, nahi baduzue, gehiago galdetu, eta gehiago kontatuko dizuet Xarxari buruz, zer zentro mota dauden, etab. Galdera batzuk utziko ditut, animatzen bazarete ere.

Política pública municipal y creación cultural

Objetivo principal: Recoger percepciones y experiencias de agentes clave del sector cultural y creativo para informar futuras políticas públicas.

Metodología:

- Realización de 3 grupos focales y entrevistas a 8 expertas
- Participación de más de 40 personas representando perfiles diversos: instituciones públicas, entidades culturales, iniciativas comunitarias, jóvenes creadores, etc.
- Enfoque territorial y temático (ámbitos rurales, urbanos, públicos y comunitarios)

Temas explorados:

- Retos del sector cultural y creativo
- Vínculo entre cultura, sostenibilidad y cohesión social
- Necesidades en formación, financiación y políticas públicas

Eta ikerketaren aldeari helduko diot. Hemen oso zintzoa izan naiz: esplorazio fasean diren bi gauza aurkeztu nahi dizkizuet, baina mahai gaineko agendan ditut, biak ere interesgarriak eztabaidarako, nik uste. Batetik, Bartzelonako Diputazioan lantzen ari garen proiektu baten atariko emaitzen berri emanen dizuet, udalerrri txikietan kultura bultzatzeko zer alderdi diren interesgarriak aztertzeko. Hori Tramoya izeneko jardueraren baten bidez ari gara lantzen Bartzelonako Diputazioarekin; ni ikerlari nagusia naiz, dena oso atarikoa da... Beraz, harreman zintzo bat bezalakoa da jardueraren aurkezteko orduan, eta elkarriketak ere ireki ditzake. Azterlanean planteatzen ziren gauza askok dute lotura elkarriketekin eta, halaber, hori aurkeztea gustatzen zait elkarriketa sustatu ahal izan dezan, hemen aztertzen ari garenaren ikuspegi zabalagoa izan dezagun. Halaber, eskuzabalak izan gara beste administrazio batzuekin partekatzeko orduan, asmo honekin, hots, ez dugu nahi nire azterlana nigan gelditzea, nik esan ahal izan dezadan emaitzak aurkeztu ditudala; baizik eta lan mota bat sortu nahi dugu, lanak berak aliantzak sor ditzan. Eta hori, nire ustez, ez da beti erraza, Administrazioek interes politiko desberdinak dituztelako, eta uste dut aldarrikatu behar dela; akademiaren jarreratik, hori egin dezakegu, nik uste, eta halaber, gure rol pribilegiadunetik egin dezakegu, huraxe galdu gabe.

Lan hori urte hasieran sortu zen eta kultur sorkuntza udalerrietan bultzatzeari buruzko AMIA markatzen duten alderdiak bilatzea du ikuspegi eta, horrekin batera, saiatzen da pentsatzen zer estrategia izan litezkeen interesgarriak erronka horiei heltzeko. Eta batetik, orain arte egindako ikerketa guztien gaineko analisi dokumentala egin zen. Askotan, ikerketa bat hasten dugunean, pentsatu ohi izan

dugu gorpila asmatzen ari garela, eta egin nahi ez genuena -batez ere kulturarekiko konpromisoaren ikuspegitik- da gonbidatzea jendea erronkaz mintzatzea, agian bi urte lehenago besteren batek gauza bera eskatu dienean. Horrenbestez, gutxienez aurrez AMIA bat eraikitzeke lana egin genuen, jakiteko aurreko azterlanetan zer alderdi identifikatuak ziren. Horrekin, hiru foku talde antolatu genituen: bata artistekin, oinarritzko ikuspegia ongi ezagutzeko eta nola ikusten zituzten erronka horiek eta, batez ere, haien ustez zer estrategia izan zitezkeen erabilgarri beren lana errazte aldera. Gero, topaketa bat egin genuen sorkuntza zentroekin. Katalunian egoteko zoria dugu eta sarea nahiko egituratua dago; beraz, erraza izan zen identifikatzea zer zentrok zituzten zentroen eginkizuna izan zitekeenaren mugak arakatzeko zituzten esperientziak, eta interes horri erantzuten ziotenak, ez soilik zentroaren interesari, baizik eta nola sustatu sorkuntza udalerrri batean. Eta azkenik, udal teknikariek *focus group* bat ere egin genuen. Nik uste dut udal teknikarien *dream team* taldea eraman genuela, saioa egiazki harrigarriki erakargarria izan baitzen. Ikuspegi teknikitik, badira ahoz aho eta zirriborrazten dabiltzan irtenbide asko, esperimentatu direnak, eta uste dut ikuspegi analitikoago batetik, har dezakegula ia anekdotikoa den hori, hots, teknikari baten asmazioa beste baten sinergiarekin, etab., eta ikaskuntza sorkuntza duen zerbait egiturazkoagoa, errazagoa, zeharkakoagoa egiten dugu.

Hortaz, jardunbide egokien ikuspegia eta nolabaiteko pizgarria sortzea Administrazio Publikoan, halakoak egin ditzan. Hori ere Akademiatik egin dezakegu eta egin behar dugu, nik uste; zeren horretarako, posizio pribilegiatuago baten balioa sortu behar baitutu, nik uste. Ez dugu haren babesaren konpromisorik eta mendekotasunik, edo ez bakarrik haren babesarena, eta entzunez sortzen den ezagutza egituratzeko ikuspegia dugu politika publikoaren balioa emateko.

Orain elkarriketak egiten ari gara. Pixka bat azalduko dizuet zer alderdi atera diren, eta uste dut ez zaituztetela gehiegi harrituko. Azkenean, ikerketa egiten dugunean ez ditugu oso gauza berritzaileak egiten ikerketaren ikuspegitik. Ikerketaren aurrerapean dira ia estalita dagoen esparru bat duzula, eta zulo txiki bat dagoela, eta, nola estaltzen duzu zulo hori? Hemen mahai gainean dauden gauzen esparru hori guztia aztertu dugu, eta nola aurkeztu ditugun irtenbide berriak, berriak ez direnak, baizik eta egiturazkoak bihurtzen ditugunak. Esperimentazioa bera ikuspuntu zintzoago batetik kokatzeko. Aipatu den zerbait: sare publiko-komunitarioak indartzea, erakunde publikoen, oinarritzko kultur erakundeen eta herritar antolatuen arteko lankide-

tza sustatzea; lurraldeko autokudeaketa kulturalerako moduak aitortzea eta babes-
tea, hori erraz identifikatzen dugu, ekimenak askotan *bottom up* direla: herritarrak antolatzen direnean, nahiko alderdi harrigarriak eta artikulatuak antolatzen dituzte, eta administrazioaren laguntza behar dute. Nola errazten dugu trantsizioa *bottom up* kultura batetik *top down* hedapen batera jotzeko? Askotan hori egitea dute gustuko administrazio publikoek, hots, proiektu hauek aurkeztuko ditut eta jarrai iezadazue. Ez. Nola entzuten dut azpitik gertatzen ari dena eta nola ematen diote balio bat ditudan tresnen bidez? Finantzazio egitura, azpiegituren egitura, etab.

Finantzazio politika egonkorrak, deszentralizatuak eta egokituak bultzatzea; urte anitzeko laguntza ildoak ezartzea, proiektuen iraunkortasuna bermatzeko; administrazio prozedurak sinplifikatzea, erakunde txikiei eta landa-erakundeei baliabideak eskuratzeko; gizarte eta kultur eraginaren irizpideak sartzea, produktibitate ekonomikitik haratago. Finantzazioari dagokionez, jasangarritasun esparruak aipatu behar dira, azkenean proiektu batzuk administrazio publikoaren proiektuak direlako eta, batzuetan, finantzazio laguntza egonkorragoa dutelako. Baina zenbaitetan, hala-ber badaude laguntza publikoekiko nolabaiteko mendekotasuna duten ekimen pribatuak. Eta nola sustatzen da hori? Erakunde pribatuaren benetako ekarpena guztion ondasunera bideratuz, baina, aldi berean, haren iraunkortasuna ahalbidetuko duten finantzazio tresnak izan ditzala. Eta hori ez da gauza erraza, beti da erronka bat.

Esan bezala, kontua da, halaber, nola ematen dugun produktibitate ekonomikitik haratago doan zeharkako zerbaiten kulturaren dimentsioa. Alderdi ekonomiko batzuk ekonomia feministarekin daude lotuta, sendaketen ekonomiarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin, horiek ere ukigarriak eta oso balio indartsua baitute, eta termino ekonomikoetan ere islatzen da. Kultura ondasun komun gisa aitortzea, kulturaren rola kontsumo eta entretenimendutik haratago birplanteatzea, eraldakuntza sozialaren eta ongizatearen eta kohesioaren eragile gisa ulertuta. Politika publikoen diseinuan kultur eragileen ahotsa sartzea, eta hori beti da erronka bat.

Estrategias para fortalecer la creación cultural local

1. Reforzar las redes de colaboración público-comunitaria:

- Fomentar la cooperación entre instituciones públicas, entidades culturales de base y ciudadanía organizada.
- Reconocer y apoyar las formas de autogestión cultural existentes en el territorio.

2. Impulsar políticas de financiación estables, descentralizadas y adaptadas:

- Establecer líneas de ayuda plurianuales para garantizar la sostenibilidad de los proyectos.
- Simplificar los procedimientos administrativos para facilitar el acceso a recursos a entidades pequeñas y rurales.
- Introducir criterios de impacto social y cultural más allá de la productividad económica.

3. Reconocer la cultura como bien común:

- Replantear el rol de la cultura más allá del consumo y el entretenimiento, entendida como motor de transformación social, bienestar y cohesión.
- Incluir la voz de agentes culturales en el diseño de las políticas públicas.

Estrategias para fortalecer la creación cultural local

4. Apostar por la formación, el acompañamiento y la profesionalización:

- Diseñar programas de formación continua adaptados a contextos locales (rurales, periféricos, jóvenes, etc.).
- Apoyar espacios de asesoramiento y mentoría para iniciativas emergentes.
- Invertir en capacidades de gestión, evaluación y sostenibilidad de los proyectos.

5. Fortalecer la articulación territorial y la equidad en el acceso cultural:

- Promover políticas culturales que reduzcan la centralización y tengan en cuenta las realidades diversas del territorio.
- Asegurar la presencia de programación y recursos en zonas rurales y pequeñas poblaciones.

6. Integrar la sostenibilidad y la transversalidad:

- Establecer sinergias entre cultura, medio ambiente, educación, salud y desarrollo local.
- Priorizar enfoques que incorporen la perspectiva de género, diversidad cultural y justicia ecosocial.

Ondoren, beste ikuspegi batetik, hots, ezagutza transmititzeko moduari lotuta ere badagoen ikuspegitik, prestakuntzaren, lagun egitearen eta profesionalizazioaren aldeko apustua egiteko beharra sortzen zen. Horri ere XarxaProd sarearen eginkizunari datxekio berez. Baina, era berean, ikusarazi behar da, nik uste, nola egin daitekeen era integratuago batean, eragina izan dezan ez soilik lana egiten ari diren pertsonengan, bitartekariengan, etab., baizik eta baita udal teknikariengan beraiengan ere. Ohartu baikinena teknikari batzuek interes handia dutela kultura ikuspegi oso aberatsetik sustatzeko, baina zenbaitetan oso tresna gutxi dituztela. Nola sor genitzake laguntza figura horiek, beste udalerrri batzuekiko loturak sortzeko erraztasuna emanen luketenak? Zenbaitetan, kultur arloko udal teknikariari edo udal politikariari esaten diogu: “Aizu, zergatik ez duzu zerbait egiten aldameneko udalerriarekin? Ez baitut astirik, lanez gainezka bainago”. Ikuspegi horrek, zenbaitetan, mentoretza ideia hori izan dezake edota prestakuntza ikuspegi hori sendotzeko ideia, udalerriei lagunduko dien figura bat babesteko. Eta uste dut hori *focus groups* edo elkarrizketa gune horietatik ateratako kontu interesgarria izan dela.

Sortzen ari diren ekimenen aholkularitzarako eta mentoretzarako guneak babestea; proiektuen kudeaketa, ebaluazio eta jasangarritasunerako gaitasunetan inbertitzea... Zeharkako aspektuen batetik bi gauza interesgarri agertzen dira: alde batetik, sorkuntza artistiko eta kulturaleko prozesu guztiak sustatzen saiatzea, prozesu osoa uler dadin eta sorkuntzako espazio batzuk ikusezin bihurtu ez daitezen; eta hori sust

tatu beharreko zerbait da, eta orain ere sareak ehundu behar dira, zenbaitetan ia ezkutuan geratzen den zerbait gertatzen baita sorkuntza, esplorazio eta ikerketa prozesuan, jendeak ia azken emaitza bakarrik espero duenean. Eta nola sor dezakegun balioa ekoizpenean eta esperimentazioan bertan, baita huts egiten denean ere. Nik uste dut horrek ere harreman desberdinak ahalbidetzeko aukera eman dezakeela lurraldeen artean, kultur sorkuntza arakatzeko esparruan ikusgarritasuna duten sorkuntza zentroen artean, eta balio bat ematen zaiona, eta balio bat ere baduena komunitatearekin duen harremanari dagokionez. Eta, ondoren, hori beste lurralde esparru batean erakutsi daiteke, non pertsona gehiago dauden edo jende gehiagori transferitu dakioken.

Eta eraginari dagokionez, beste alderdi interesgarri bat ere aipatu behar da. Lantzen joan den gauza bat. Tortosako Kultura eta Landatasunak topaketan ere, Ministerioak aurkeztutako azterlanak kultur sorkuntzaren balioa nabarmendu zuen, berez duen balio ekonomikoaz harago, hau da, ekonomia ikuspegi zabalago batetik. Lehenago esan duzue: “aizue, egin beharreko lehen gauzetako bat da identifikatzea zertaz mintzatzen garen kulturaz ari garenean”. Bada, galdera ere egin beharko genuke, zertaz mintzatzen garen ekonomiaz ari garenean, ez bailitzateke soilik dirua izan behar eta, batez ere, kultur perspektibaz ari garenean. Hori zuei esatea ebidentzia da, nik uste, baina geure buruari oroitarazten joan beharra dago, nik uste; zeren, bestela, zenbaitetan, kultura izan daitekeenaren lan guztia kulturak duen beste dimentsio horietatik kentzen dugu, hots, gizarte eraldakuntza, inklusioa, ahotsa ez duen



jendea ikusaraztea, ahotsa ez duten kolektiboak ikusaraztea.

Lurralde egituraketa eta kultur sarbidearen ekitatea indartzea: zentralizazioa murriztuko duten eta lurraldearen askotariko errealitateak kontuan hartuko dituzten kultur politikak sustatzea, eta programazioaren eta baliabideen presentzia ziurtatzea landa-eremuetan eta eremu txikietan. Eta, arestian esan dizuedan bezala, eta gai honi dagokionez, oso garrantzitsua da, baita ere, sorkuntza espaziotik kanpo ez dagoen programazio bat nola egituratu behar den zehaztuko digun ikuspegi estrategikoa. Eta hori nik uste dut sareak ehuntzeko orduan ere garrantzitsua dela. Hau da, komunitateak prozesu batean parte hartu behar du, ondoren prozesu hori ikusi ahal izanen duena. Jakina, hori ezin da prozesu guztietan egin, baina uste dut balio bat ere badela arte edo kultur sorkuntzako proiektu baten konplexutasun osoa ulertzea. Ez da erronka, aukera baizik, nire ustez.

Eta jasangarritasuna eta zeharkakotasuna txertatzea. Hori nahiko lotuta dago nire aurkezpena amaitzeko azaldu nahi dudanarekin. Sinergiak ezartzea kulturaren, ingurumenaren, hezkuntzaren, osasunaren eta tokiko garapenaren artean, eta genero ikuspegia, kultur aniztasuna eta justizia ekosoziala txertatzen dituzten ikuspegiak lehenestea. Kulturaren dimentsio holistiko hori eta kultura gure osasunerako, gure ongizaterako, etab. tresna ere izan daiteke, jakina. Eta hori diskurtsiboa izateaz gain, batzuetan den bezala, txertatu ere egin behar da; eta hainbat departamentu barne

hartzten dituen proiektu edo kultur proposamen bati buruz hitz egiten saiatzen zarenean, horretarako aukera egon behar da. Izan ere, askotan, eta ziur nago denoi gertatu zaigula, administrazio publikora proiektu batekin joaten gara, eta esaten dugu: *“arraioa, asko interesatzen zait osasunekoarekin hitz egitea”*. Eta osasunekoak dio, *“ez, zu ere inklusioaz ari zara; beraz, hitz egizu inklusioaz arduratzen denarekin”*. Eta azkenean kulturakoa dator, kultur kudeaketa sustatzen duen pertsona batengandik datorrelako, eta kulturakoak dio, *“ba ez daukat honetarako laguntza ildorik”*. Focus group horietan horixe bera ikusi da behin eta berriz. Esan bezala, oraindik abian den proiektu bat da, espero da irailean emaitzak aurkeztea, baina interesgarria iruditzen zitzaidan orain agertutakoaren gaineko ikuspegiren bat azaltzea, eztabaidan edo aldi berean lantzen ari zareten aspektuetan baliagarria izan daitekeelakoan.

Azkenik, lan hipotesi bat azalduz bukatu nahiko nuke; ez da hipotesi hutsa, baizik eta badu nola-halako errealitatea, baina ikerketa ildo bat lantzen ari naiz, hots, nola bultzatzen daitekeen ikuspegi akademikoagotik. Ziur zuetako askok badakizuela zer den agroekologia. Dakizueenez, agroekologia jarduera eraldatzailea da gure elikadurari dagokionez, hau da, nola elikatzen garen, eta ez soilik kontuan harturik elikagai ekoizpen mota izanen litzatekeenari lotuagoak dauden aspektuak, ekologiak jada egiten duen bezala, baizik eta era berean lanean ari diren pertsonak kontuan harturik: lan baldintzak, lurrarekiko sentiberatasuna, eta lurak nola duen portaera natural bat, etab. Aspektu hori, ziur, txikia da elikadura bere osoan harturik. Elikadura Espainian industriaren % 25 da, baina aldi berean agroekologia joera bat ezartzen ari da, nik uste, mugimendu gisa, elikadura eraldatzeko elementu gisa. Eta Katalunian, supermerkatu marka handiak agroekologiaren ikuspegiak eta begiradak hartzen ari dira aintzat; horrenbestez, agroekologia mugimendu gisa batzuetan mehatxua da; nire ustez, *greenwashing* aspektuak kontrolatzen badira, aukera da. Hau da, azkenean uste dut industria ez dela disolbatuko, baizik eta huraxe eraldatzen ere lagundu beharra dagoela. Eta Administrazio Publikoak hortxe luke legezko esparruak sortzeko eginkizun hori, sustapen politikak, etab., edozein sektoreren ikuspegi eraldatzailea sustatze aldera. Eta agroekologian, uste dut Administrazio Publikoa nahikoa sustatzailea izan dela; Katalunian, behintzat.

Nik nire doktoretza tesia agroekologiari buruz egin nuen, digitalizazioak agroekologian duen eragin guztia aztertzei aukera izan nuen, baina era berean halako topagune oso berezi batean. Agroekologia gizarte mugimendu gisa oso desegituratua zegoenean eta, zenbaitetan, gizarte merkatu perspektibarik ez zuenean.

Hau da, ez soilik irabazia aintzat hartzen duen merkatua, baizik eta alderdi sozialak kontuan hartuko lituzkeen merkatua, eta hori Ekonomia Solidarioko Xarxa sarearen bidez garatu da Katalunian. Mugimendu horien topaketa egituratzen hartu nuen parte, hots, Ekonomia Sozialaren eta Agroekologiaren arteko topaketa. Eta ikuspegi hori lotu nahiko nuke pertsona talde batekin garatzen ari garen lan ildoekin. Hau da, kultur jardueraren ikuspegi ekonomiko hori sustatu eta haren dimentsioa sendotu nahi dugu; hori ondareaz haratago doa, komunitate topaketa horretaz haratago doa, inklusio gune horretaz haratago doa, ikusarazi gabe dauden taldeak ikusarazteaz haratago doa, aitortza gune horretaz haratago. Baina nire ustez, horrek ere dimentsio ekonomikoa izan beharko luke. Eta hortxe jardun dezakegu dagoeneko landuak dauden Ekonomia Sozial eta Solidarioaren adierazle eta printzipioen bidez, eta horretan lan egin dugu.

Horrenbestez, hor demokraziaz eta parte-hartzeaz mintzatzeak ekonomia eredu jakin bat sustatzea esan nahi du. Azterlanen arabera, partaidetza ereduak erresilienteenak ere badira. Kooperatibek ere beren erresilientzia erakutsi dute tresna gisa; beraz, ikuspegi partekatu hori duen kultura sustatu behar da. Lehenago, partaidetzan oinarritutako gobernantzaren adibideak ikusi ditugu proiektu batzuetan, hori garrantzitsua baita. Lan eta ongizate baldintzak, ekitate eta feminismo aspektu guztiak, ikaskuntza ikuspegi batetik. Feminismoen bolada bizienean gaude kasik eta uste dut horrek lagundu behar digula hurbiltzen ekonomiarekiko gure harremanaren beste esparru batzuetara. Hemen ikaskuntza luzea dugu, funtsean. Jasangarritasunak eta ingurumenak berekin dakartzaten guztia, arestian esan dugun bezala... Ekonomia, eraldakuntza gune gisa, oso lotua dago arestian aipatu dudan elkarren arteko lankidetzarekin eta politika publikoekin. Eta gizarte eragin guztia, lurraldean sustraitzea, errentagarritasuna, etab.

Alderdi horiek guztiak, konplexuak diruditen arren, asko landu dira ekonomia sozial eta solidarioan, adierazleen ikuspegitik. Orain, neurketa-adierazle horiek nola eraldatzen ditugun aztertzen ari naiz, kulturaren eragina aztertzen duten azterlanak (eta ikuspegi ekonomikoa dutenak) ez daitezen izan soilik zenbat diru ateratzen den sustatzen dudana ikuskizunaren sarreretatik. Agian ez da kulturaren alderdirik garrantzitsuenak, edo ez luke izan behar. Eta batzuetan, ekonomiaz hitz egiten denean ikuspegi disziplinarretik mintzatzen da. Nik ekonomiari buruzko ikuspegi hori dudanez –agian humanistikoagoa, kritikoagoa, ikuspegi artistikoago batetik, utopikoago batetik–, ekonomia sozialak eta, batez ere, ekonomia solidarioak markatu duenarekin era-

kusten saiatzen naiz topagune horiek, eta hor hegoalde globalaren ikuspegi osoa aldarrikatzen dut, ekonomiarekiko harremanari dagokionez beste esparru bat izan duena.

Esan dizuedan bezala, gogo handia nuen eztabaidarako aitzakia izan daitezkeen galdera batzuen bidez amaitzeko, aipatu ditudan alderdi batzuk laburbiltzen saiatze aldera. Baina, batez ere, zuei entzutea gustatuko litzaidake, aipatu ditudan alderdi batzuk nola ikusten dituzuen jakiteko eta, batez ere, proposatzen diren azterlanean edo ikerketa ildo hauetan aipatu ditugun alderdi batzuei buruzko iritzia eman dezazuen; edo zerbait gehiago jakin nahi baduzue inLoft-i buruz, sorkuntza zentro gisa, edo XarxaProd sareari buruz. Ahaztu egin zait esatea proiektu hau Nau Còclea izeneko beste zentro batekin bultzatu dugula, Clara Garírekin; egunotan Lizarran dabil, hain zuzen ere, Kultura eta Landatasunak ekimenerako jarduera bat prestatzen. Beraz, ikerketa arloko Ramón y Cajal beka batekin sinergian sortutako proiektua da.

Hementxe utziko nuke eta, nahi baduzu, eztabaidari helduko diogu. Inork hitza hartuko du? Motibagarria izan da zuentzat?

Entzuleetako bat:

Ricard, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizut, hitzaldi bikaina izan baita. Kultur kudeatzaileez mintzo garenean, beste pertsona askorekin lan egiten duzuen pertsonak zarete. Orduan, nik jakin nahiko nuke, dituzuen ezagutzez gain (ezagutza handiak, denak), sareak ehuntzeko orduan –zuk esan duzun bezala– eta sarean lan egiteko orduan, zer garrantzi ematen diezu *soft skills* direlakoei? Harremanak izaten jakitea. Zail-zaila da edo ezagutzak oinarritzekoak dira baina ez da gauza bakarra? Zer esperientzia izan duzu horri buruz?

RICARD ESPELT

Ba, bete-betean asmatu duzu. Batzuetan, topaketa batzuetan zaude eta proiektu bateratuak landu nahi dituzu, eta zailena da jendea bere proiektua azaltzen ez saiatzea. Nik hemen proiektu batzuk kontatu behar izan dizkizuet testuinguruan kokatzeko, baina ez dut nire liburuaz hitz egin nahi izan, edo horretan saiatu naiz, eta hori askotan gertatzen da. Orri zuriarekin hasten garenean, eta esaten dugunean “tira,

Para el debate...

- ¿Cómo podemos garantizar el acceso equitativo a la cultura en diversos contextos (rurales o no centralizados) y qué papel pueden jugar las redes culturales en la articulación territorial?
- ¿Qué medidas deberían priorizar las administraciones para asegurar la sostenibilidad del trabajo cultural e integrar la cultura en otras agendas públicas (clima, educación, salud)?
- ¿Qué implica considerar la cultura como un bien común en la práctica y qué ejemplos de gestión comunitaria podrían inspirar nuevas políticas?
- ¿Qué herramientas y políticas pueden mejorar el reconocimiento y las condiciones laborales del sector?
- ¿Cómo pueden las prácticas culturales contribuir a una transformación social justa y qué aprendizajes emergen de experiencias de economía social y solidaria en el ámbito cultural?

lotura gune hau bilatuko dugu, eta ez, ordea, zer egiten duen batek gainontzekoek bat egin dezaten”, eta baterako sorkuntza guneak sortzen saiatuko gara. Hori egoaren aurka doa, selfiearen aurka doa, nork bere burua agertzearen aurka doa. Hau da, kolektiboa sortu behar da. Eta hori ez da erraza. Ez da erraza, harreman aspektu horiek tartean direlako.

Guk, XarxaProd-en, zortea izan dugu, proiektu askok beren espazioetan oso ikuspegi *bottom up* batetik lan egin zutelako, hau da, harremanak egiteko gaitasuna zuten pertsonen trebetasunak kontuan hartu dituzte, taldearen inguruan balioa sortzeko. Eta, oro har, funtzionatu du. Baina ez da erraza eta beti da erronka bat. Izan ere, zenbaitetan, elkarrekin sortzeko behar diren trebetasunak ekarri behar ditugu gogora. Pertsona garen aldetik, egora jotzen dugu, espazio bat okupatzeko premiara jotzen dugu, pixka bat urrunago egoteko beharra dugu beste batzuei hitz egiteko, eta hor beti saiatu behar da birkokatzen. Oso garrantzitsua da trebetasun mota komunikatiboago horiek izatea, laguntza ere behar dutenak. XarxaProd-en kanpoko pertsona bat dugu, nabarmen laguntzen ari zaiguna; gainera, dinamizatzen du eta begirada dekoloniala du, brasildarra delako, eta oso ikuspegi interseksionala du kulturak duen esanahiaz gure pribilegio egoeratik, gu kexatzen garenean, eta beti laguntzen digu birkokatzen. Eta eginkizun hori oinarritzeko da, nik uste: birkokatzea, askotan pribilegiotik hitz egiten dugulako.

Entzuleetako bat:

Iruzkin soil bat eginen dizut. Orain, agroekologia da. Hain zuzen ere, arestian Artaxoan egiten ari den elikagai basoaz mintzatu dira, permakulturan oinarritua dagoen baso horretaz. Rakesh jatorri indiarreko irakasle ingelesak esan duen bezala, permakultura lorategiz mozorrotutako iraultza bat da eta, orduan, oinarritzeko itzultzea da, hau da, naturarekin elkar bizitzera, eta hori bat dator pixka bat zuk hizpide izan duzunarekin. Ohar hori besterik ez.

RICARD ESPELT

Bai, guztiz ohar egokia da; nire ustez, ikuspegi hori ere kulturatik planteatu behar dugu eta niri zalantza batzuk sortzen zaizkit: hazkundearen ikuspegia. Hau da, hazi egin behar da, bestela egituratu beharra dago, baina agian kulturatik ere mugimendu asko daude: Transition Towns, permakultura, mugimendu agroekologikoa, *degrowth* mugimendu guztia... Europar Batasunak ere horixe txertatu du: ez da mintzo *degrowth* mugimenduz, Europar Batasunetik oso gaizki geldituko litzatekeelako, baina *postgrowth* du hizpide. Tira, modu mozorrotua da baina printzipioak nahiko partekatuak daude, hau da, kontua da nola deseskalatu; era berean, sareek, adimen artifizialak, esposizio beharrak bultzatzen gaituzten globalizazioaren eginkizunetik... Niretzat, ohorea da Coponsen gertatzen diren proiektu txiki-txikiak honela azaltzea, baina balioa ez da hori hemen azaltzea, balioa da hori herri batean egin ahal izatea, emakumezkoen lanaren indar guztia izan dena berraztertzeke lanak egin ditugun bezala, indar hori ezkutuan baitzegoen, edota zein den amatasun garaikideak landa eremuan duen ibilbidea.

Niretzat, jendearekin hitz egiten duzunean du zentzua, baina era berean komunitatean edo naturan sustraitua egotearen ikuspegitik, globalizatu edo hazi beharrik gabe. Nire ustez, permakulturaren atzean ere badago gogoeta bat: zeri esaten diogu hazkundera? Zergatik hazi behar dugu? Agian, beste modu batez hazi behar dugu, baina modu organikoagoan, hau da, ez hain modu kuantitatiboan, ez nagusiki zenbakiei begira edota ez soilik zenbakiei begira. Erronka da, permakultura erronka da, agroekologia erronka da, kapitalismoaren alternatiba gisa ikusarazten den alternatiba oro da erronka, edota plataformako kapitalismoaren alternatiba gisa digitalizazioaz mintzo garenean. Azkenean, Isabelek aipatu dituen plataformetako batzuk plataformako kapitalismoaren eredu dira; plataforma batzuek kultur ekoizpen guztiaren kontrola dute, eta kooperatibak sortzen ari ote diren, hori beste eztabaida bat

izanen litzateke, baina nik darabildan beste ikerketa eremu bat da, hau da, plataformako kooperatibismoaren eremua plataformako kapitalismoaren alternatiba izateko. Nola sortu digitalizazioa gobernantza parte-hartzaileago batean oinarrituat, hau da, nola joan informazioaren eta datuen erauzketan bakarrik oinarritua dagoen eta lan baldintzak, jabetzak eta abar aitortzen ez dituen eredutik beste batera? Kapitalismoa horretaz ere jabetzen saiatzen ari da ikuspegi teknologikotik, eta Isabelek hizpidera ekarri duen datuen inguruko eztabaida hori guztia.

Entzuleetako bat:

Beste gai bat ekarriko dut hizpidera, beste inor animatzen ote den ikusteko. Deigarri egin zait, aholkularitzez eta mentoretzez ere mintzatu zara; hein batean, ikerketa prozesu horretaz guztiaz hitz egin duzu, baina ez dakit ezagutzen ote duzun baliagarria izaten ahal zaigun kudeaketa eredu bat. Gaur goizean ekintzailatzaz ere mintzatu dira, gazteriaz, gauzak egiteko gogo handia duen jendeaz baina behar diren tresnak eskura ez dituztenak, ezta? Eta, bestalde, halaber, lan bat duen jendea, kultur teknikari bat edo nire kasua, enpresa pribatua ari garenak eta batzuetan gauzak egin nahi ditugu baina astiak edo paperek, zer nahi den ere, larritu egiten gaituzte, eta ezin dugu egin; baina batzuetan ere agian zerbait esanen dizun pertsona bat behar genuke kanpoan: *“aizu, agian alde honetatik jotzen baduzu edota gauzak ikuspegi honetatik ikusten badituzu edota hemen denbora galtzeari uzten badiozu eta gehiago zentratzen bazara, bai agian horrek beste ate batzuk irekiko dizkizu”*. Beraz, adibiderik edo eredurik ezagutzen ote zenuen jakiteko edota argibidea ekarri nahi ote diguzun arlo horretan.

RICARD ESPELT

Azalduko dizuet pixka bat zer egiten den XarxaProd sarean udal politika bultzatzeko, irtenbide perfektuak izan gabe, hau da, irtenbide posibleen esplorazioak dira. XarxaProden bi dinamika ditugu: bata kanpo aholkularitza da, kanpo pertsonak dira. Xarxak bi finantzazio mota ditu: batetik, proiektu eta laguntza publikoetan parte hartzea eta, bestea, bazkideen kuota. XarxaProdeko bazkideok (orain, ia 60 erakunde dira) kuota bat ere ordaintzen dugu sortzen ditugun diru-sarreraren arabera edo gure aurrekontuaren arabera. Gure kasuan, oso proiektu txikia da; beraz, gure ekarpena txikia da. Proiektu batzuk askoz ere handiagoak dira eta gehiago ordaintzen dute. Finantziazio mota horrek mentoretza gune hori sortzeko aukera ematen digu; batez ere,

autonomia sustatzea delako asmoa. Zentro asko izateak ongi funtzionatzen digu, ongi egituratuak baldin bagaude. Hau da, interesgarria da herri askok sorkuntza zentroak izatea udalerriko kultur sorkuntza egituratzen laguntzeko, baina aldi berean sare lana egiteko gaitasuna dutenak, atomizatuegiak ez gelditzeko, baita laguntzetan ere. Horrela, jendeak ez du laguntza bere kasa eskatu behar eta ez dira haien artean lehiatzen; horretan saiatzen gara. Xarxak laguntza hori errazten du proiektu handiagoak eraikitzeko, finantzazio gaitasun handiagoa izan dezaten, eta horrek mentoretza, laguntza, esan nahi du, proiektu handi bat egiteak premia gehiago baitakartza berekin.

Halaber, aliantzak unibertsitatearekin. Beraz, kultur ekinbidean eta unibertsitatean ari garenok finantzazio mota hori eskuratzeko modua erraztu dezakegu. Eta hor, zentroek mentoretza jasotzen dute hainbat arlotan profesionalen aldetik, arlo juridikoan, negozio eredua, proposamenak prestatzeko laguntzak, politikak prestatzeko laguntzak... Baina era berean zerbitzuak mankomunatzeko orduan, eta hori duela urte eta erdi hasi dugu. Adibidez, ia zentro guztiek webgunea dute. Non dago ostatatua webgune hori? Mankomunatu daitezke webguneen zerbitzuak? Laguntza lor daiteke? Eduki al daiteke webguneak izanen ditugun espazio digitalaren dimentsio bat? Izan daiteke erakunde handi batek kapitalizatzen ez duen espazio bat, zerbitzari bat? Horrek ingurumenerako onura ere eragin dezake, zerbitzarien kokaguneari begira? Ez dakit, gure jardueraren ikuspegi zabalagoa izatea eta nola saiatzen garen sare gisa zubiak sortzen jasangarritasunaren logika baterantz. Eta ez da erraza, eta kontraesan bezala dago; beraz, diskurtsoak zoragarria dirudien arren, erronkaz bete dago. Baina horixe da ikuspegia pixka bat, nik uste.

Eta hor, zenbaitetan, zentroek berek bultzatzen dituzte ekimenak. Ez dakit ezagutzen ote duzun Hangar, hau da, Bartzelonako zentro handienetako bat. Erro komunitarioa du, baina Bartzelonako sorkuntza lantegietako parte da. Espazio gisa, joera garbia izan dute komun digitalak, teknologia irekiak, sustatzeko orduan, bidezko teknologiak datuen sarbideari dagokionez, etab. Proiektu bat sustatzen ari dira XarxaProdek komun digitaletan oinarrituagoa dagoen digitalizaziorantz jotzeko. Erreferentzia zentroa da, eta proaktiboak dira hori sustatzeko. Horrela, eragile batzuek dituzten dohaiak nabarmentzen dira, eta hori indartzea beti da erronka, oso lotuta gaudelako *soft skills*-ez esan duzunarekin. Batetik, eskuzabala izateko gaitasuna izan behar duzu zure proiektua nola planteatzen duzun pentsatzeko orduan, ez baituzu horretaz jabetu nahi, baizik eta elkarren arteko lankidetzan aritu behar baituzu, hein

batean. Eta hori oso ikaskuntza luzea da. Beraz, hor ere bada erortzen den jendea, etortzen den jendea, tentsioak... Sare baten gobernantza beste hitzaldi baterako gaia da; ez da erraza sare lana egitea. Hortaz, eskuzabalak izan beharra dago, eragile bakoitzaren ahalmena ikusi, eta era berean, profil bakoitzean oso kokatua dagoen ikuspegi batetik aldarrikatu; eta horixe egiten saiatu naiz neure burua aurkeztean, ikuspegi hau ikusarazteko orduan; ez da soilik kultur ekinbideari buruzko ikuspegia, baizik ikuspegi akademikoago ahalbidetzen dizun ikuspegi oso analitikoa.

Entzuleetako bat:

Zuri galdetu nahi nizuke, eta hemen zaudeten guztioi, ea enpresa batzuek kultur kudeatzaile baten zerbitzuak kontratatzen dituzten. Sartu al dira kultur kudeatzaileak enpresa baten egituraren barnean kanpoko aholkulari gisa edo proiektu jakin batzuetan laguntzeko?

RICARD ESPELT

Ez dut erantzunik. Gertatu da, eta uste dut hori ere pentsatzeko eztabaida bat dela, eta ez dut irtenbiderik, baina badago nolabaiteko tentsioa analisi sozioekonomikoaren ikuspegitik, aldaketa edo eraldakuntza filantropikoenen eta eraldakuntza sozialagoen artean. Enpresa handi batzuek kulturaren aldeko apustu garrantzitsua egin dute, fundazio paraleloak sortuz, profesionalen bidez kultura sartuz beren enpresa-ekintzaren inguruan, ikuspegi eraldatzaile gisa. Zenbait bankuk (batzuk aipa genitzake) eraldakuntzarako gune oso garrantzitsu gisa dihardute. Nik uste dut ikuspegi kritiko hori ere eduki behar dela, eta horrek ez du esan nahi ikuspegi suntsitzailea denik. Alde batetik, sustatu behar da erakunde handiek kultura sustatzea beren erakundearen berezko eragile gisa eta, aldi berean, kritikoa izan behar da ziurtatzeko ez dela ikuspegi filantropikoa edo ikuspegi filantropiko hutsa, baizik eta elementu eraldatzaileagoetara ere jo dezakeela. Eta hori ere tentsioa da, erronka da.



Reyno de Artajona gunean egindako topaketa

2025eko maiatzaren 13an

KULTURA SAREAN

ETORKIZUN JASANGARRIRAK ALIANTZAK

Babeslea



Laguntzaileak



AYUNTAMIENTO DE
ARTAJONA
ARTAXOAKO
UDALA



Sociedad de Corralizas
y Electra de Artajona

Antolatzailea

